





# EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA

Adierak eta adibideak

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). CEDRO erakundeak ([www.cedro.org](http://www.cedro.org)) babesten ditu aipatu eskubide horiek.

Azalaren diseinua: Juanma Aramendi

Ikasmaterial honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hizkuntza-azterketaren egokitasun-aitormena du: 2012-06-22

© Euskaltzaindia

© Paperezko lehen argitaraldi honena: Euskaltzaindia, Elkarlanean S.L., Elhuyar Fundazioa, 2012

ISBN: 978-84-9027-023-3

Lege-gordailua: SS-1007/2012

Euskaltzaindia

Plaza Barria, 15

48005 Bilbo (Bizkaia)

Tel. (+34) 944158155 - Fax. (+34) 944158144

[info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)

[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Elkar argitaletxea

Portuetxe kalea, 88 bis

20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)

Tel. (+34) 943310267 – Fax (+34) 943310216

[elkarargitaletxea@elkar.com](mailto:elkarargitaletxea@elkar.com)

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

Elhuyar Fundazioa

Zelai Haundi, 3

Osinalde industrialdea

20170 Usurbil

Tel. (+34) 943363040 - Fax (+34) 943363144

[elhuyar@elhuyar.com](mailto:elhuyar@elhuyar.com)

[www.elhuyar.org](http://www.elhuyar.org)

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak S.L., Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain (Gipuzkoa)

## Aurre-hitzak

*Euskaltzaindiaren Hiztegia, adierak eta adibideak.* Hona hemen, erabiltzailearen esku-  
ra, urte luzetan ondutako ahaleginen emaitza; euskararen akademiak moldatua eta itxura-  
tua.

Inon bada hizkuntza akademia baten eginkizunik behinena, honexetan da, hain zuzen  
ere, hizkuntzaren lexikografiari bultzada ematen, estandar baten osatze eta mamitze aldera.

Izatez, horixe da aspaldiko gogoia euskararen akademian ere eta azken bizpahiru ha-  
markadatako zeregina. Osoko Bilkuran zein hiztegi batzordeetan, behin eta berriro landu  
du Euskaltzaindiak lexikografia arauemailea, euskalgintzan ari direnei norabide ziurra eman  
nahian. Euskalkietatik nahiz egungo bizimodutik euskararen egunerokotasunean erroto di-  
ren hitz horiek sistematizatzen eta egokitzen saiatu da Euskaltzaindia etengabe, *Hiztegi Ba-  
tua*, alegia, estandar delakoaren hitz zerrenda erabilgarria osatuz.

Osatu ez ezik, gizarteratu ere egin du behin eta berriro, garai bateko eta oraingo bali-  
bide teknikoak erabiliz. Horretarako baliatu ditu, besteak beste, lan esanguratsuak, hala nola  
hizkuntzaren tradizioan (*Orotariko Euskal Hiztegia*), egungo errealitatean (*XX. mendeko Eus-  
kararen Corpus estatistikoa* eta *Lexiko Behatokiaren Corpusa*) eta hizkuntzaren esparru zabalean  
(*Hiztegi Batua*).

Orain beste pauso bat eman du Euskaltzaindiak, euskararen normalizazio eta nor-  
matibizazio munduan. Hainbatez, euskara-euskara hiztegia lehenez argitaratu du, beste hiz-  
kuntzetan ohikoa dena gurean ere plazaratuz, hots, euskararen hitzek dituzten adierak eta  
adibideak euskararen bidez emanik.

Hona, beraz, lehen oinarria, aldian-aldean egokitzen joango dena. Hona, beraz, eus-  
kaltzain askoren ahalegina eta emaitza, azken batean, euskaltzain oso (oraingoak eta lehena-  
gokoak), urgazle, laguntzaile eta abar, partaide eta egile direlako, geroago azaltzen den mo-  
duan.

Horien egiletasunak, hala ere, ez du ostendu behar azken urteetan lanean buru-belarri  
ibili den taldea, Ibon Sarasola euskaltzain osoaren zuzendaritzapean. Ildo beretik, ezta talde  
horretarako lagungarri izan den Osoko Bilkuraren ahalaz osaturiko Batzorde Ahaldundua-  
ren kideak ere. Bitzuok izan dira ezinbesteko makuluak, lana azkeneraino eramateko. Hor

egon da, egon ere, guztion lagungarri, Andoni Sagarna Iker sailburuaren esku trebea eta, zer esanik ez, Osoko Bilkuraren kideen ekarpena eta, orobat, akademiaren zerbitzu eta administrazio langileen laguntza.

Guztion ekarpenak behar izan dira hiztegi hau gauzatzeko. Guztionak eta, argi esan dezadan, baita hamaikatxo erakunde publiko eta pribaturenak ere, hain juxtu, Euskaltzaindiari sostengu materiala ematen diotenenak.

Eskerrik beroenak, bestalde, ELKAR eta ELHUYAR fundazioei eta LUR Hiztegi Entziklopedikoari, hiru horiek eskuzabal utzi dutelako euren langaien erabilera, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* osatzeko garaian.

*Finis coronat opus*, esan ohi da. Hiztegegintza, hala ere, bukaerarik gabeko jarduera da, hizkuntza etengabe biziberritzen delako seinalea. Seinale ona euskararentzat ere, eta etorkizuneko belaunaldientzat erantzukizun nabarmena dakarrena.

Horretara dator hiztegi hau, asmo eta gogo horiei laguntza ematera eta erabiltzaile orori tresna berria eskaintzera, euskara bera gero eta erabilgarriagoa, gero eta ageriagoa izan dadin euskal gizartean.

Andres Urrutia, euskaltzainburua

# Aurkezpen gisa

## 1. Atarikoak

2000. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak *Hiztegi Batua*. Hogei bat mila hitzeko hitz zerrenda zen, hitz horien ortografia batua adierazten zuena batez ere. Esku artean duzun liburu hau 20.000 hitz haiei dagokien “hiztegi osoa” da, hots, haietako hitz bakoitza adierez, definizioz eta adibidez hornitzen duena.

Harrezkero *Hiztegi Batua* haziz joan da, eta 36.000 sarrera ditu –hau da, 16.000 hitz berri– azken kaleratu den argitaraldian. Hitz berri horiek ez dira *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* lehen bertsio honetan –1.1 bertsioan, nolabait esan– sartzen: Euskaltzaindia dagoeneko prestatzen ari den hurrengo bertsioan sartuko dira. Izan ere, Euskaltzaindiaren Hiztegia, gainerako hiztegi ofizialak bezala, osatzen eta hizkuntzaren aldaketetara egokitzen edizioz edizio joango den obra da.

Hiztegi elebakar batek bi eginkizun ditu. Alde batetik, hizkuntzako hitzek “zer esan nahi duten” argitzea. Bestetik, delako hitz horiek nola erabiltzen diren, hots, zer joskeratan agertzen diren edo ager daitezkeen azaltzea. Orainsu arteko hiztegi guztiek, bai euskarazkoek bai erdarazkoek, lehen eginkizuna bete dute batez ere, hots, hitz jakin baten esanahia edo esanahiak eman izan dituzte besterik gabe. Erabilera-adibiderik ez dute ia eman, edo eman dutenean, anekdotikoak edo apaingarritzkoak izan dira, oro har, adibide horiek.

Azken hamarraldietan asko aldatu da munduan hiztegien itxura eta edukia. Hiztegi-gileek gero eta argiago ikusten dute hizkuntza bat ongi menderatzeko garrantzi handiagoa duela hitza nola erabiltzen den jakiteak, hitzaren esanahiaz jabetzeak baino. Beste hitz batzuekin esateko, hitzaren definizioa, eduki semantikoa baino areago, hitz hori ager daitekeen testuinguruen multzotzat hartzen da gaur egun. Adibide bat jartzeko, har dezagun *gerra* hitza: hitz horren definizioak ez digu esaten –ezin digu esan– euskarazko tradizioan gerrak ez direla “lehertu” –gaztelaniaz bezala–, baizik eta “piztu” egin direla. Bestalde, euskaldun guztiek–edo dakite zer esan nahi duen *gerra* hitzak; euskal hiztegi elebakar batean *gerra* hitzera jotzen badute, beste zerbaiten bila jotzen dute. Zertzelada hauek kontuan izan ditugu hiztegi honetako sarrerak finkatzean.

## 2. Sarrereren egitura: atarikoak

*Euskaltzaindiaren Hiztegia*, gorago azaldu dugunez, *Hiztegi Batuaren* osatze bat, hura definizioz eta erabilera-adibidez hornitze bat, da azken batean. Hortaz, *Hiztegi Batuaren* egitura ahal den neurrian atxikitzen saiatu gara *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an; adibidez, laburduren bidez –hots, *Bizk.*, *g. er.*, *du ad.* eta kidekoez– ematen diren informazio mota guztiak bere hartan errespetatu ditugu, eta orobat hitz-sarreran hartzen duten hurrenkera-lekua.

Nolanahi ere, begien bistakoa da euskara estandarra nabarmen aldatu dela, lexikoari dagokionez, azken urteetan. Aldaketa horien artean ez da txikiena, berez euskalki-hitzak direnek estandarrean izan duten "arrakastatik" datorrena. Adibide bakar bat jartzeko, noraino da gaur egun bizkaierazkoa **gizateria** hitza, *Hiztegi Batuan Bizk.* markaz agertzen dena? Kontuan hartu beharko du irakurleak zertzelada hau esku artean duen *Hiztegi Bizk.*, *Ipar.* eta kidekoak ikusten dituenen: marka horiek, gaur egun, hitzaren jatorria besterik ez dute adierazten, euskara batuaren onerako. Orobat esan daiteke *Zah.*, *g. er.* eta *g. g. er.* marka duten hitzez: argi dago, nahiz horietako hainbat ez diren erabiltzen gaur egungo estandar batuan, beste asko erabat arruntak direla egungo testuetan, marka hori gorabehera. Ildo honetan esan behar dugu Euskaltzaindiak marka horiek egungo egoerara egokitu egin beharko dituela bere *Hiztegi* nagusian hurrengo edizioen batean.

Gramatika kategoria eta funtzioei dagokienez, hots, *iz.*, *dio ad.* eta kidekoei dagokienez, euskal hiztunek horrelako terminoez duten ideia intuitiboaz baliatu gara, oro har, hiztegi honetan. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* ez da hizkuntzalarientzat, are gutxiago hiztegitagileentzat, baizik eta idazle, irakasle edo teknikarientzat, futbolari nahiz ekonomialarientzat. Eta kontuan hartu dugu hiztegien erabiltzaileek, oro har, hizkuntzalariek uste duten baino gramatika-ezaguera askoz ere urriagoa dutela. Horiek horrela, alde batetik, eta adibide bat aipatzeko, **frantziar** bezalakoak, nahiz eta egungo euskal gramatikarientzat izenak diren, guk izenlaguntzat markatu ditugu; hots, dagokien izenaren eskuinean nahiz ezkerrean ager daitezkeen elementutzat, *frantziar idazlea* nahiz *idazle frantziarra* joskeretan. Bestalde, gramatika kategoriai buruzko informazio horiek adibideen bidez ere ematen saiatu gara.

## 3. Sarrereren egitura: definizioak eta adibideak

Hiztegi honetan, besteetan bezala, hitz bakoitzak sarrera bat osatzen du, eta sarrera horretan definizio bat edo gehiago ematen dira, adieren arabera. Adiera bakoitzak paragrafo bat osatzen du. Paragrafo horietan, kasu batzuetan, halako ñabardura batzuk markatu ditugu gure ustez adiera mailara heltzen ez direnak emateko. Ñabardura horiek || ikurraz bereizi ditugu adieraren paragrafo berean.

Definizioak finkatzeko, kontuan izan dugu azken urteetan argitaratu diren euskal hiztegi elebarrak, bereziki *Euskal Hiztegiak*, *Lur Entziklopediaren Hiztegiak* eta *Elhuyar Hiztegi Modernoak*, erakusten duten batasun nabaria definizioen eite eta tankerari dagokionez. Oinarri horren gainean egin dugu lan Hiztegi honetako definizioak eratzeke, hiztegi horietako definizioen sintesia lortzen saiatuz.

Adibideei dagokienez, esan behar dugu arlo horretan egin dugula ahaleginik handiena, gorago aipatu dugun ikuspuntuaren ildotik. Sarrera bakoitzaren adiera bakoitzean berariaz



saiatu gara gure tradizio idatziko joera nagusiei men egiten, eta joskera maizkoenak eta ongien dokumentatuak jasotzen. Hau da, joskera-eredu guztien argazki moduko bat eratzen saiatu gara, eredu bakoitzari bere pisua, maiztasunaren edo egokitasunaren arabera, ematen saiatuz, hots, maizko ereduak edo eredu egokienei adibide gehiago eskainiz. Dena dela, joskera bihurriko hitzei dagokienez, bihurrikeria hori azaltzeko adina adibide ematen saiatu gara, hitzaren erabilera altua edo baxua gorabehera. Konturatzen gara helburu horiek erabat betetzerik ez dagoela. Are gehiago, helburu horietara hurbiltze soila, kasu askotan, aski zaila dela. Nolanahi ere, irakurleak dakikeen bezala, gaur egun, *Orotariko Euskal Hiztegi*ako adibidete-giari eta egungo euskararen corpusei esker, helburu hori fidagarritasun maila aski altu batez bete daiteke, duela hamarraldi batzuk ezin pentsatuzko fidagarritasunez hain zuzen. Esan gabe doa *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* ontzaileek ez dugula inongo sarreratan gure kasa asmatu-riko adibiderik sartu.

Paratu ditugun adibideak, noski, estandarren eskakizunei egokitu dira: ez du irakurleak adibideetan aurkituko ez hiztegi sarreretan agertzen ez den hitzik, ezta ere Euskaltzaindiak onartzen ez duen formarik. Muga horien barnean ahalik eta zabalen jokatzen saiatu gara.

Irakurlea berehala konturatuko da Hiztegi honetako hitz eta adiera asko erabilera-adibiderik gabe agertzen direla. Hori ez dator goragoko paragrafoetan esan dugunaren aurka. Azken batean, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* bi hitz mota biltzen ditu: gaur egun euskal idazleek gehien erabiltzen dituzten hitzak alde batetik, eta, bestetik, gaur egun erabiltzen ez badira ere, gure tradizioan halako pisu bat izan dutenak. Jakina da Euskaltzaindiak gure tradizio idatzari eman dion garrantzia: euskal Akademiak argitaratu dituen gure autore klasikoen edizio kritikoak dira horren lekuko. Ildo honetatik bidezko da *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an ager dadin, gure tradiziokoak izanik ere, gaur zaharkituak diren hitzen lekukotasuna eta argibidea.

#### 4. Hitz baztertuak eta ez-hobetsiak

*Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* eta *Hiztegi Batuan* arteko desberdintasun nabariena, tratatzen aldetik, bigarren honetan *h.* edo *e.* marka duten hitzei dagokiena da. *Hiztegi Batua* lehen idatzaldia plazaratzen joan zen garaian, estandarra aski finkatua zegoen morfologiaren aldetik, baina ez horrenbeste hiztegiari zegokion alderditik. Horiek horrela, Euskaltzaindiak pentsatu zuen, garaiko joerari men eginez, gogortxo jokatu behar zuela hitzen onartze eta arbuizatzearen kontuan, euskal hiztegiaren batasuna ahalik eta arinen lortzeko. Jarrera horren ondorio dira *Hiztegi Batuan h.* eta *e.* markekin agertu ziren hitzak.

Gaur egun, bistan da, euskara batuko hitzak orduan baino askozaz ere finkatuagoak daude forman nahiz erabileran. Horren ondorioz *Euskaltzaindiaren Hiztegi* honetan hitz ez-hobetsiei *h.* marka kendu zaie bere erabilgarritasuna bermatuz, baina, hori bai, erabilera-adibiderik gabe ematen dira, bigarren mailakoak direla nolabait markatzeko.

*Hiztegi Batuan e.* markaz agertzen ziren hitzei dagokienez, Euskaltzaindiak horiek baztertzen jarraitzen du, baina baztertze formula leunduz, hots, erabilera debekatze-rik ez erabiltzea gomendatzera pasatuz.



# Euskaltzaindiaren osoko bilkura

## Euskaltzain osoak

Aleman, Sagrario	Oñederra, Lourdes
Arejita, Adolfo	Peillen, Txomin
Arkotxa, Aurelia	Sagarna, Andoni
Atxaga, Bernardo	Salaberri, Patxi
Azkarate, Miren	Salaburu, Pello
Coyos, Jean-Baptiste	Sarasola, Ibon
Davant, Jean-Louis	Toledo, Ana
Haritschelhar, Jean	Torrealdai, Joan Mari
Goenaga, Patxi	Uribarren, Patxi
Iñigo, Andres	Urrutia, Andres
Kintana, Xabier	Videgain, Xarles
Lakarra, Joseba	Xarriton, Piarres
Larre, Emile	Zabaleta, Patxi
Lizundia, Jose Luis	Zalbide, Mikel
Oihartzabal, Beñat	



# **Euskaltzaindiaren hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldundua**

## **Parte-hartzaileak**

### **Burua:**

Iker sailburua (Sagarna, Andoni)

### **Idazkaria:**

Euskaltzaindiaren idazkaria (Kintana, Xabier)

### **Kideak:**

Egitasmoaren zuzendaria (Sarasola, Ibon)

Arejita, Adolfo

Hiztegi Batuko lantaldearen arduraduna, ahotsaz bai, baina botorik gabe  
(Aduriz, Jose Antonio)

## **Erredakzio taldea**

Hitzerean S. L. (Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi, Gabriel Fraile)



## Laburdurak eta ikurrak

	Azpiadiera marka	Esr. zah.	Esaera zaharra
ad.	Aditza	Estat.	Estatistika
adib.	Adibidez	Eufem.	Eufemismoa
Adkor.	Adierazkorra	Fam.	Familia (taxonomian)
adlag.	Adizlaguna	Fil.	Filosofia
Admin.	Administrazioa	Fil.	Filum (taxonomian)
Akus.	Akustika	Finantz.	Finantzak
Albait.	Albaitaritza	Fis.	Fisika
Am.	Amikuzera	Fon.	Fonetika
Anat.	Anatomia	g. er.	Gutxi erabilia
Anton.	Antonimoa	g. g. er.	Gaur gutxi erabilia
Antz.	Antzerkia	Geogr.	Geografia
Arg.	Argazkilaritza	Geol.	Geologia
Arkit.	Arkitektura	Geom.	Geometria
Arrunk.	Arrunkeria	Gip.	Gipuzkera
Art.	Artea	Glodod.	Glododidaktika
Astron.	Astronomia	Goi.	Goi-mailakoa
Autom.	Automobilismoa	Gram.	Gramatika
banatz.	Banatzaila	Haur.	Haur-hizkera
Beh.	Behe-mailakoa	Heg.	Hegoaldea
Biokim.	Biokimika	Herr.	Herri-mailakoa
Biol.	Biologia	Hist.	Historia
Bizk.	Bizkaiera	Hizkl.	Hizkuntzalaritza
BNaf.	Behe-nafarrera	ik.	Ikus
Bot.	Botanika	Inform.	Informatika
cf.	Confer	interj.	Interjekzioa
Cl.	Klasea (taxonomian)	Ipar.	Iparraldea
Ekol.	Ekologia	Itsas.	Itsasketa
Ekon.	Ekonomia	iz.	Izena
Elek.	Elektrizitatea	izlag.	Izenlaguna
Eraik.	Eraikuntza	izond.	Izenondoa
Erl.	Erljioa	izord.	Izenordaina

Jas.	Jasoa	ord.	Ordinala
junt.	Juntagailua	Paleont.	Paleontologia
Kim.	Kimika	Pedag.	Pedagogia
Kirol.	Kirolak	Pei.	Peioratiboa
Kont.	Kontabilitatea	pl.	Plurala
Lap.	Lapurtera	Pol.	Politika
Lgart.	Lagunartekoa	postpos.	Postposizioa
Liter.	Literatura	pred.	Predikatua
Log.	Logika	Psikol.	Psikologia
lok.	Lokailua	Sin.	Sinonimoa
Mat.	Matematika	Soziol.	Soziologia
Med.	Medikuntza	sp.	Espezia (taxonomian)
Mekan.	Mekanika	Subfam.	Subfamilia (taxonomian)
Merkat.	Merkataritza	Subkl.	Subclassis (taxonomian)
Metal.	Metalurgia	Subord.	Subordo (taxonomian)
Meteorol.	Meteorologia	Superfam.	Superfamilia (taxonomian)
Metr.	Metrika	Taurom.	Tauromakia
Mikol.	Mikologia	Tekn.	Hitz teknikoa
Mikrob.	Mikrobiologia	Teknol.	Teknologia
Mil.	Militarrak	Teol.	Teologia
Miner.	Mineralogia	Zah.	Zaharkitua
Mitol.	Mitologia	zenb.	Zenbakia
mug.	Mugatzailea	zenbtz.	Zenbatzailea
Mus.	Musika	Zientz.	Zientzia
Naf.	Nafarrera	Zin.	Zinema
Nekaz.	Nekazaritza	Zool.	Zoologia
onomat.	Onomatopeia	Zub.	Zuberera
Opt.	Optika	Zuz.	Zuzenbidea
Ord.	Ordena (taxonomian)		



## **Esker onak**

ESPAINIAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA MINISTERIOA

EUSKO JAURLARITZA

NAFARROAKO GOBERNUA

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KUTXABANK

EUSKADIKO KUTXA

BILBAO BIZKAIA KUTXA

GIPUZKOAKO KUTXA

VITAL KUTXA

BILBOKO UDALA

GASTEIZKO UDALA

IRUÑEKO UDALA

DONOSTIAKO UDALA

ELKAR FUNDAZIOA

ELHUYAR FUNDAZIOA

LUR ARGITALETXEA

UZEI



# A

**a**<sup>1</sup> iz. Alfabetoko letra (a, A). *A larria*.

**a**<sup>2</sup> interj. Oi! *A!, ikusi banu*.

**ababor** iz. Ontziaren ezkeraldea, popatik brankara begiraturaz. Anton. **istribor**. *Uhartea ababorreko aldetik utzi. Ontzia ababorrera makurtzen da. Ababorrean ur zulo bat dago*.

**abade** **1** iz. Gizonezkoentzako monasterio bateko burua. *Paulo abade zahar hura. Leireko abadea*.

**2** iz. Bizk. Apaiza. *Abade jauna*. || Esr. zah.: *Nolako elizalde, halako abade. Abadearen lapikoa, txikia baina gozoa*.

**abade egin** Bizk. Apaiz egin. *Alargundu eta gero, abade egin zen*.

**abadesa** iz. Emakumezkoentzako monasterio bateko burua. *Monasterioko abadesa zenean. Bere komentuko abadesa*.

**abadetu**, abade/abadetu, abadetzen **1** *da/du* ad. Monasterio bateko buru bihurtu.

**2** *da/du* ad. Bizk. Apaiztu. *1909an jantzi zen kaputxino eta 1917an abadetut*.

**abadia** iz. Abade edo abadesa baten gidaritzapeko monasterioa edo eliza. *Fraidetegia abadía bilakatu zen eta abade baten manupean baziren kalonje andana bat*.

**abagune** **1** iz. Zerbaitetarako unea edo aukera, besterik adierazten ez bada, ona. *Jaunak opa dizun abagune eder hau. Atertu duenez gero, egurasteko abagunea dugu. Aurreneko abagunean egin zuen ihes*.

**2** iz. Denbora bitartea. *Abagune handian egon naiz pentsatzen*.

**abaildu**, abail, abailtzen **1** *da/du* ad. Neka-neka egin, leher egin. *Haurgintzaren nekeak ez du abaildu. Gorputza abaildua gelditu zitzaion*.

**2** *da/du* ad. Zuhaitzak edo adarrak, fruituaren pisuaz makurtu. *Ale gorritz abailduta sagarrak*.

**abail-abail egin** Neka-neka egin, leher egin. *Ohean utzi dut ondoezik abail-abail eginda*.

**abakando** iz. Otarrainaren antzeko itsas krustazeoa, aurreko hankagin handiz hornituak dituena eta sukaldaritzan oso aintzat hartua dena (*Homarus gammarus*). Ik. **misera**. *Ospakizunetan aitarekin elkartu eta abakandoa edo txangurrua jaten genuen*.

**abako** **1** iz. Aritmetikako oinarritzko eragiketak egiteko taula boladuna. *Asia Txikian abakoa asmatu zuten kalkuluak egiteko*.

**2** iz. Arkit. Zutabe baten kapitelaren goialdea, ohol gisakoa. *Abakoaren zabalera kapitelaren altueraren zazpiren bat izango da*.

**abandonatu**, abandona, abandonatzen **1** *du* ad. Utzi; alde batera utzi; bertan behera utzi. Ik. **utzietsi**. *Ez dago erromatar legerik haurrak abandonatzen uzten duenik*.

**2** (Era burutua izenondo gisa). *Harriak zartzen dituen eta goi lur abandonatu hauetan ezer bizirik uzten ez duen haizea*.

**abangoardia** **1** iz. Talde armatu batean aurrean doan zatia. *Abangoardian joan. Armadaren abangoardia*.

**2** iz. Artean, politikan eta kidekoetan, bere ausartasunagatik aitzindari gertatzen den mugimendua. *Abangoardiako poesia. Eta bitxienean da abangoardia uztartu ahal izan dutela tradizioarekin. Langile klasearen abangoardia*.

**abantaila** iz. Norbaitek edo zerbaitek edozein alde-tatik duen lehentasuna edo nagusitasuna; onura, probetxua. *Anitz fabore eta abantaila. Hori egiteak ekarriko dizkion abantailak. Aberastasunaren abantaila handiak. Abantaila bezainbat kalte. Zerbaitetatik abantaila atera. Abantaila hartaz gabetua izatea*.

**abantaila eraman** (Zah.). Aldea atera. *Urreak beste diru guztiei eramaten dien abantaila*.

**abao** iz. Abaraska. *Abao hutsak kendu*.

**abar** **1** iz. Zuhaitz edo zuhaixka adarra, bereziki egur gisa erabiltzen dena. *Haritz abarra. Abar txikia. Abarrak biltzen. Abar su, laster su* (esr. zah.).

**2** iz. Balio gutxiko gauza.

**3** iz. Hondakina. *Ikatz abarrak*.

**eta abar** Eta gainerakoak. *Zezenak, behiak, txahalak eta abar. Olerkariak (Lizardi, Lauaxeta eta abar). Han biltzen ziren beren jaiegunetan otoitz egitera eta abar*. || *Borroka latz samarrak ditugu era askotako puntuetan, ikastola, erlijio, politika eta abarretan. Gezurrez eta abarrez beterik baitaude*.

[Oharra: *eta abar luze bat* joserka desegokia da].

**abaraska 1** iz. Erleek, ezia gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten gelaxka hexagonalen multzoa. Ik. **abao**. Ezia *darion* abaraska. Erle joan-nahiak, ez ezia, ez abaraska (esr. zah).

2 iz. Liztorrek eta beste zenbait animaliak egiten duten antzeko egitura.

**abaritz** iz. Artearen antzeko zuhaitz edo zuhaixka (*Quercus coccifera*).

**abarka** iz. Euskal Herrian erabili ohi den larruzko edo gomazko oinetakoa, batez ere oinaren azpialdea babesten duena eta soka baten bidez zangoaren behealdean lotzen dena. *Abarka eta soineko zaharrak adabatu*. *Abarkak jantzi*. Behiaren larruarekin josten ziren abarkak. *Abarkak oinetan lotu*.

**abarkadun 1** izond./iz. Abarkak erabiltzen dituen. *Baserritar abarkadun bat, nik baino anatomia gehiago dakiena*.

2 iz. (Pei.). Baserritarra, gehienetan gizarte klasetzat hartua. *Abarkaduna izan arren, guk adinako eskola zuen*. *Ikusi zeinen beldurtiak diren abarkadun txepel hauek!*

**abarketa** iz. Zola espartuzkoa eta gainaldea ehunezkoa duen oinetakoa. *Oin bat ortozik eta bestean abarketa zahar bat zeramala*. *Abarketa zuriak*.

**abaro 1** iz. Zuhaitzpeko edo bestelako babesgunea, abereek eguzkitik gerizatzeke erabiltzen dutena. *Abaroaren bila gerizpera bildu diren txoriak*.

2 iz. (Irud.). Nazionalismoaren abaroan gizen du.

**abaro egin** Ganaduak abaroan biao egin. *Non egiten du abaro artaldeak?*

**abaroan egon** Itzalpean egon. *Abaroan daude behiak*.

**abarrakitu**, abarraki, abarrakitzen *du* ad. Suntsitu, desegin. *Haize eraso batek abarrakitu du txabola*. *Bosgarren ordu laurdenerako, arras xehatu, abarrakitu eta azpiratuak izan ziren erromatarrak*.

**abarrots** iz. Harrabotsa.

**abat 1** iz. Gaztagintzan erabiltzen den zurezko ontzia, bi euskarri dituen, kaikua eta goporra baino handiagoa. *Gazura egosirik, abatzetik abatzerat botatzen da, irabiatu-rik hozteko*.

2 iz. Gurpilaren erdiko pieza, ardatza sartzen dena eta izpiak biltzen dituen. *Intzirika biratzen ziren abatzak ardatzetan*. *Gurdiaren gurpilak abatzetaraino sartu zitzaizkion lokatzetan*.

**abdikatu**, abdika, abdikatzen *du* ad. Erregetzari uko egin, erregetza utzi. *Bi hilabeteren buruan erregeak abdikatu egin zuen*.

**abdomen 1** iz. *Anat*. Ornodunetan, enborraren behealdeko barrunbea, digestio aparatuen, gernu aparatuen eta ernaltze aparatuen zenbait organo daukana. *Abdomeneko giharrek*.

2 iz. *Anat*. Artropodoen gorputzeko atzeko zatia. *Intsektu horiek argia ematen duen organo bat dute abdomenaren azpiko aldean*.

**abegi** iz. Harrera. *Abegi txit ona egin diegu*. *Abegi onez hartzen zituen*. *Lagunartea gustatzen zaigu eta abegi oneko jendea gara*. *Zerbitzari abegi txarrekoari ez ikusia eginez*.

**abelazkuntza** iz. Abereak hazteko gizakiaren lanbidea eta jarduera. *Euskal Herriko ohiko abelazkuntza*. *Gaitz horrek kalte handia ekarri zion abelazkuntzari*.

**abelera** iz. Gip. (G. er.). Egoera.

**abeletxe** iz. Abereak gordetzen diren toki babestua, baserritik berezia. *Abeletxe batean jaio zen*. *Iragorriko abeletxean izan ginen egun hartan*.

**abelgorri** iz. Behiaren motako aberea. *Abelgorria esaten zaie zezen, idi, zekor, idisko, behi, bigantxa, txahal eta behi taldeari darraizkion osterantzekoei*. *Abelgorrien tuberkulosia*. *Abelgorriak eta ardiak ez omen dira ostiraletan mendira eraman behar*.

**abeltegi** iz. Ukuilua edo abeletxea. *Zure abeltegitik ateratzen duzun ongarrria*. *Elizak abeltegi bilakatu ziren*.

**abeltzain** iz. Abereak zaintzen dituen pertsona, bereziki bizibidez. *Nekazariak eta abeltzainak*. *Abeltzain ibili zen bost urtez*.

**abeltzaintza** iz. Abereak zaintzeko lanbidea edo jarduera. *Galiziako klima hezeak lur langintza eta abeltzaintza bereziak sortu ditu*.

**abemaria 1** iz. Hitz horiez hasten den kristau otoitza. Ik. **agurmaria**. *Hiru abemaria errezatu zituen*.

2 iz. Angelusaren deia eta ordua, bereziki arratsaldekoa. Ik. **abemarietako**. *Abemarietan gera dadila danbolina*.

**abemarietako** iz. Abemarietako ordua edo kanpai joaldia. *Kanpaiak abemarietako jo zuenean*.

**abendu 1** iz. Urteko hamabigarren eta azken hila. *Jantzi hori ona da denbora beroan baina ez ilbelztean eta abenduan*. *Abenduko ostegunetan*. || Esr. zah.: *Abenduko eguna, argitu orduko iluna*. *Abendu zuri, ez ardi eta ez axuri*.

2 iz. (Data adierazteko, -en atzizkia hartzen duela). *Abenduaren 12an heldu ziren*. *Abenduaren bata asteartea da aurten*. *Abenduaren seian etorriko da*. *Abenduaren batetik zortzira irekita egongo da*. || (Aposizioan, -k atzizkia hartzen duela eta zenbakia artikulurik eta kasu markarik gabe). *Gaur, abenduak 5, igandea*. *Datorren ostegunean, abenduak 20, izendatuko da epaimahaia*.

3 iz. Eliza katolikoaren urte liturgikoan, Eguberri aurreko lau asteek osatzen duten denbora. *Abenduaren bigarren igandeko irakurgaia*. *Abenduko lehenengo igandea*.

**abeniko** iz. *Ipar*. Hitzarmena, konponketa. *Dagigun biok abeniko bat eta abeniko hura izanen da ene faboretan*. *Auzitan dabiltzan artean abenikorik egin nahi baduzu*. *Gobernariak hainbeste hitzarmen sinatuak zituzten indiarrekin, hainbeste abeniko eginak, gero inoiz ere betetzen ez zituztenak*.

**abenka 1** iz. Itsasontzi batean, mastan gora igotzeko sokazko eskala.

2 iz. Masta finkatzen duten soketako bakoitza.

**abentura** iz. Gertaera bitxia edo arriskutsua. *Abentura handiak iragan ditu itsasoan*. *Orduantxe hasi ziren ume hauen abentura zoragarriak*.

**abenturazale** izond./iz. Abentura bila dabilena, abenturak gustuko dituen. *Zalakain abenturazalea*. *Atsegin du beste abenturazale batzuen lekukotasunak irakurtzea*.

**aberasbide** iz. Aberasteko bidea. *Haien aberasbide nagusia lurra zen*.

**aberasgarri** izond. Zerbitu edo norbait aberasten duena. *Lur asko eta aberasgarriak dauzka*. *Aldakuntza hori aberasgarria gertatu da hizkuntzarentzat*. *Bakardadea bilatua denean, ez bortxatua, aberasgarria da beti*. *Baratze eta usategi, aberasgarri (esr. zah.)*.

- aberastasu** 1 iz. Ondasunen ugaritasuna. *Aberastasu-nak ematen du aginpidea. Ez ohorerik, ez aberastasu-nik. Garai hartan Espainia guztian omen zen baso-oihanetan aberastasu handia.*  
 2 iz. pl. Norbaitek dituen ondasunak. *Herri baten aberastasuak eta baliabideak. Euskarak bere baitan dituen aberastasuak. Aberastasunen banaketa zuzena. Aberastasu galkorren ondoan ibiltzea.*  
 3 iz. Aberatsa denaren nolokotasuna. *Aberastasu-nan bizi. Pobretasunetik aberastasu-nera igaro. Aberastasu-naren arriskuak.*
- aberastu**, aberats/aberastu, aberasten 1 *da/du* ad. Aberats bihurtu. *Azken urteetan asko aberastu da. Besteren lanek aberastu naute. Pobreka aberasten eta aberatsak pobretzen ditu.*  
 2 *du* ad. Aberatsago edo baliotsuago bihurtu. *Hitz eratorriez hizkuntza aberastu. Bere bilduma aberasteko. Harribitxiz aberastua.*  
 3 (Era burutua izenondo gisa). *Uranio aberastua. || Liburuak metroka erosten dituzten aberastu berriak.*
- aberats** 1 izond./iz. Ondasun handien jabe dena, diru asko duena. *Aberatsa izan. Oinordeko aberats batekin ezkondu zen. Etxe aberatsko semea. Aberatsak behartsuari laguntzen ez badio. Zein da orotako aberatsena?, bere doiaz gogobetetzen dena (esr. zah.).*  
 2 izond. On edo baliozko den zerbait ugari duena. *Baserri bat lur eta larretan aberatsa. Lurralde aberatsak. Hitzez bezain aberatsa da liburuak irudiz. Janari bat proteinaz aberatsa. Hizkuntza aberatsa hitzetan eta baliabideetan. Hiztegi aberatsa darabil. Adimen aberatsa behar gizonak horren antzeko burutapen bat izateko!*
- abere** 1 iz. Ugaztun nagusia, piztia ez dena, eta bereziki etxaldeetan lanerako erabiltzen dena edo janaritarako hazten dena. *Behiak, zaldiak, arkumeak eta gainerako abereak. Abere taldeak zaintzeko.*  
 2 iz. Animalia, batez ere ugaztuna. *Zertako egin zituen izarrak, abereak, hegaztiak, arrainak eta lur gainean ikusten diren piztia mota guztiak? Abereetatik batek ere ez du mintzorik baizik gizonak. Geldi, geldi –dio lehoiak–, ni naiz abere guztien buru eta nagusia.*  
 3 izond. Abereari dagokiona, abereen gisa jokatzeko duena. *Bere gizon aberearen eskuetan. Bazeukan euskaldun egoteko xede zin bat, nahikari abere bat.*  
**abere beltz** Txerriaren motako aberea. *Lokatzetan, abere beltza bezala.*  
**abere-hiltzaile** izond./iz. Abereak hiltzen dituenak.  
**abere larri** Behi, asto eta zaldiaren motako aberea.  
**abere xehe** Ardiaren eta ahuntzaren motako aberea. *Abere larriak eta abere xeheak zaintzen zituztenen arteko liskarrak.*
- aberria** 1 iz. Kalte handia. *Salgaiek garraioan aberiarik izan ez zezaten.*  
 2 iz. Matxura.
- aberri** 1 iz. Sorterria, bereziki naziotzat hartzen dena. *Euskotarren aberria. Venezuelan jaio bada ere Euskadi hartzen du aberritzat. Aberriaren alde bizia eman.*  
 2 iz. (Irud.). *Diruak ez du aberririk. Kristauaren aberria.*  
**Aberri egun** Euskal aberriaren eguna, Pazko egunez ospatzen dena. *Aberri eguneko mitinak.*
- aberrigabe** izond./iz. Aberririk, bereziki lege aberririk, ez duena. *Aberrigabeei laguntzeko erakundeak. Judu usaineko aberrigabeen aurkako segadak.*
- aberriratu**, aberrira/aberriratu, aberriratzeko *da/du* ad. Aberrira bihurtu. *Haurrak aberriratzeko. Erresuma Batuko bederlatzi preso laster aberriratzeko dituzte. Mozkinak aberriratzeko. Musikariek ez zen falta aberriratzeko ziren multulentzat.*
- abertzale** 1 izond./iz. Aberria maite duena, aberriaren alde saiatzen edo borrokatzen dena. *Apaiz abertzalea. Abertzale sutsua izan zen. Abertzale iraultzaileak. Euskal abertzaleak.*  
 2 izond. (Gauzez mintzatuz). *Alderdi edo erakunde abertzaleak. Egunkari abertzalea. Espiritu abertzalea. Ezker abertzalea.*
- abertzaletasun** iz. Aberriarenganako maitasun sendoa. *Egiazko abertzaletasuna. Herri handien eta txikien abertzaletasuna. Gudarien abertzaletasuna. Abertzaletasunez beterik.*
- abesbatza** iz. Abestalde nagusia. Ik. **koru**. *Parrokiako abesbatza. Andra Mari abesbatza. Abesbatzarako musika.*
- abeslari** 1 iz. Abesten duen pertsona. Ik. **kantari**. *Euskal abeslari berriak. Abeslari ospetsua izan zen. Abeslari taldeak. Bakarkako abeslaria.*  
 2 izond. Abesten duena. *Txori abeslaria. Abeslari dut bihotza.*
- abestalde** iz. Kantatzeko biltzen den lagun taldea. *Herriko gazteek abestalde bat osatu zuten Olentzero-rekin ateratzeko.*
- abesti** iz. Ahapaldietan banatutako neurtitza, doinu baten gainean kantatzen dena, bereziki zaharra edo herrikoia ez dena. Ik. **kanta**. *Olerki eta abesti zoragarriak. Abesti eta doinu asko entzun ziren. John Lenmonen abestiak. Arrantzale abestien II. lehiaketa.*
- abestu**, abes, abesten *du* ad. Ahoaz musika hots sail bat gauzatu. Ik. **kantatu**. *“Gernikako arbola” abestu ondoren. Euskaraz abestu. Zuri abestuko dizut. Txan-txangorriak ongi abesten du.*
- abiaburu** iz. Zerbait hasten edo abiatzen den puntua. Ik. **abiapuntu**; **abiagune**. *Egungo poemagintzaren abiaburu. Higidura baten abiaburu.*
- abiada** 1 iz. Zerbaiten lastertasun indarra. *Abiada hartu. Duen abiadaz urruti eroriko da. Uranio eskaria abiada handian gehitu dela diote.*  
 2 iz. Abiatzea, abian jartzea.  
 3 iz. Zerbaiten higidura norabide jakin bati buruz. *Gauzen abiada. Arazoaren abiada ona. Bere abidan segitzen du. Garrantzi handiko kontua langile mugimenduen abidan.*
- abidan** adlag. *Lasterka bizian. Abidan atera zen etxetik.*
- abiadore** iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *abiadore*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **pilotu** eta **hegazkinlari**].
- abiadura** 1 iz. *Ipar. eta Naf.* Hastapena. *Tentaldiaren abiaduran. Erromatarren garaian, Elizaren lehen abiaduran.*  
 2 iz. Korritzen den distantziaren eta horretan ematen den denboraren arteko zatidura. *Abiadura handiko trenaren inguruko jardunaldiak. Argiaren abiadura. abiadura aldagailu, abiadura-aldagailu* Ibilgailu motordunetan abiadura aldatzeko erabiltzen den tresna. *Motorra eta abiadura aldagailuak Ferrarirenak dira.*

abiagune

**abiagune** iz. Abiaturua. *Eleberriaren abiagunea erailketa bat da.*

**abian** 1 adlag. Ibiltzen hasten edo zerbait egiten hasten. *Bakea lortzeko elkarrizketak abian dira. Lan hau abian jarri zen eguna. Joateko abian da.*

2 adlag. Berehala. *Abian egin zuen.*

**abiapuntu** iz. Abiaturua. *Udal hauteskundeak abiapuntutzat hartuta.*

**abiarazi**, abiaraz, abiarazten *du* ad. Abian jarri, abiatzera behartu. *Haiek hurbildu zirenean, ihurtzuri bortitzak abiarazi zituen Jainkoak. Euskal literatura bide berrietatik abiarazteko. Bera da leize izugarri honetara abiarazi nauena.*

**abiatu**, abia, abiatzen **1 da** ad. Abian jarri, bidea hartu. *Nora helduko den jakin gabe abiatu da. Noiz abiatuko gara? Gerrara abiatu zen. Txakurra erbiaren atzetik abiatu da. Ihesi abiatu ziren. Abiatzen bazara hemendik Madrila, pasatu beharko duzu Burgos eta Avila.*

2 *du* ad. Berak abiatu zuen aldizkaria. *Kultura aste bat abiatu dute. Jendarmeeek ikerketak abiatuak dituzte.*

3 *da* ad. Hasi. *Erroma eta Kartagoren arteko haserreak abiatu zirenean. Gaizki abiatu ziren gauzak donostiarrentzat. Saltzekorik ere ez dutenean, abiatzen dira eskean. Abiatzen dira gaizki esaka.*

**abiatze** iz. Abian jartzea; hastea. *Haragiaren oldartze eta abiatze hura.*

**abiazio** iz. Hegazkin bidezko garraioa; garraibide horri dagokion jardura. *Abiazio enpresak.*

**abidjandar** **1** izlag. Abidjangoa, Abidjani dagokiona. *Abidjandar agintariak.*

2 iz. Abidjango herritarra.

**abil** izond. Trebea. *Eskola guztian ez zen haur bakar bat ni bezain abila zenik arboletara igotzen. Iparragirre abila dela askori diot aditzen. Eta esana dago, baldin bada abila, buru batek balio dituela mila. Sukaldari guztiz abila zen.*

**abilezia** iz. Trebetasuna. *Abilezia handiz itzulitako liburua.*

**abilki** adlag. *Ipar. Trebeki. Mintzo zen poliki eta abilki.*

**abio** iz. Abiatzea. *Neskatza trenaren abioari begira gelditu da geltokian. Gitarra abio bortitz batek sarrera egin zion abeslariari.*

**abioi** iz. Hegazkina. Ik. **aireko**.

**abisatu**, abisa, abisatzen *du/dio* ad. Ohartarazi, gaztigatu, kontuan ipini. (*dio* ad. denean, *nor* osagarririk gabea da). *Abisatuko dizut azaltzen bada.*

[Oharra: *abisatu*, Hegoaldean, *dio* aditza da (Apaizari *nork abisatuko dio?*) eta Iparraldean, *du* aditza (Apaiza *nork abisatuko du?*)].

**abisu** **1** iz. Oharra, kontseilua. *Itsasturi irakurleari abisua. Ez luke ez, berriz haserretzeko, beste abisuren beharrik. Gogoan erabili konfesorearen abisuak.*

2 iz. Gaztigua, ohartaraztea. *Afaltzera etortzeko abisua. Abisua hartu. Hamabiak ziren polizia abisu eman zionean.*

**abitu** **1** iz. Erljiiosoen soinekoa. *Maisu-laguntzailea abituan bildu zuten. Ordenako abitua hartu zuen. Abitu luze marroia jantzi.*

2 iz. Kutuna, eskapularioa. *Jesusen bihotzaren abitu gorria ageri zuela papoan.*

**abizari** iz. Toki jakin batean, oiloak bertan erruten ohitzeko, jartzen den arrautza.

**abizen** iz. Pertsonen deitura. *Izen-abizenak. Lau abizenak. Euskal abizenak ditu.*

**ablatibo** iz. *Hizkl. Izenaren kasuetako bat, batez ere nondikakoa adierazten duena. Hitz bat ablatiboan ipini. Euskaraz -tik kasuari esaten zaio ablatibo.*

**abokatu** **1** iz. Auzietan alderdien defentsan edo aholkularitza juridikoan aritzen den legelaria. *Nik epaile edo abokatu izan nahi nuen. Nire auzia ez da abokatu on batekin konpontzen. Abokatu euskaldunak. Abokatu talde baten bulegoa.*

2 iz. (Zah.). Bitartekoa, arartekoa. *Ama Birjina, lurrekoen abokatu hautetsia.*

**abonamendu** iz. *Batez ere Ipar. Harpidetza. Irakur "Herria", har abonamendu bat, igor urrun direnei.*

**abortatu**, aborta, abortatzen *du* ad. Umea galdu, umea galarazi. Ik. **hilaurlu**. *Londresera joan omen zen abortatzera. Ez zen abortatzeko beldur. Sendagileak abortatzen lagundu zion.*

**abortatze** iz. Umea galtzea, umea galaraztea. *Abortatze legea. Abortatze eskubidea.*

**abortu** iz. Abortatzea, umea galtzea. *Mediku onak ere ba omen zeuden abortua egiten zutenen artean. Ezkondu eta urtebetera abortu bat izan zuen.*

**abortza** iz. Belaontzien azpialdean ezartzen den ohola, aurkako haizearekiko angelu txiki bat osatzen duen norabide batean nabigatzea ahalbidetzen duena.

**abots** iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *abots*-ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **ahots**].

**abrikot** iz. Abrikotondoaren fruitua, mertxikaren antzekoa, hezurra leuna duena.

**abrikotondo** iz. Arrosaren familiako zuhaitza, abrikotak ematen dituen (Prunus armeniaca).

**absente** izond. Ez dagoena. *Aita absentearen partez.*

**absentzia** iz. Ez egotea, zerbait edo norbait ez dagoen denbora. *Nire absentziaz ohartzen lehena etxeko jabea izango da.*

**abside** iz. Elizetan, aldare nagusiaren atzeko zati biribil antzekoa. *Absidearen alboetan, urrezko zutabe batzuk zeuden. Kaperaren absidea. Abside inguruko margoak.*

**absolbitu**, absolbi, absolbitzen *du* ad. Barkatu, bereziki aitor-entzuleak edo epaileak. *Erretoreak ere aise absolbitu nau. Beraz, epaileak iritzi talde bati jarraitzen badio, kondenuatu egingo du erugabea, eta beste bati jarraitzen badio, absolbitu.*

**absolutismo** iz. Aginte guztiak estatuburuaren esku dauden gobernu era. *Erregeak absolutismo gogorra ezarri zuen.*

**absolutista** izond. Absolutismoari dagokiona; absolutismoaren aldekoa. *Agintea botere absolutista zen, eta errege-erreginek Elizarekin batera agintzen zuten. Fernando VII.a errege absolutista.*

**absolutu** **1** izond. Berez halakoa dena, beste ezeren arabera hartzen ez dena. Anton. **erlatibo**. *Tenperatura absolutua.*

2 (Izen gisa). *Absolutuak elikatzen eta moldatzen ditu ametsak, irudimenaren bidez.*

**balio absolutu** *Mat.* Zenbaki erreal batek plus/minus ikurra kontuan hartu gabe duen balioa.

**absoluzio** iz. Barkamena, bereziki aitor entzule edo epailearena. *Apaizak absoluzioa eman dit. Auzipetu guztien absoluzioa eskatu diote epaimahaiari.*

**abstraktu** **1** izond. Ezaugarriez mintzatuz, izaki errealan gauzatu gabe agertzen dena. Anton. **konkretu**. *Ongia, edertasuna, adigai abstraktuak dira. Ideia*

- abstraktuak. Objektu konkretuak irudikatu egiten dira, balio abstraktuak adierazi egiten dira.
- 2 izond. Arte plastiko eta grafikoaren joera, erreallitate ukigarriaren irudikapena arbuaitzen duena. *Kandinskyk margolan abstraktuak sortu zituen.*
- abstrakzio** iz. Zerbaiten osagai bat, besteak baztertuz, aintzat hartzea; ideia edo gogoeta abstraktua. *Ezaguna zaiona bakarrik hartzen du aintzat, inolako abstrakzio gaitasunik gabe.*
- absurdo** 1 izond. Zentzugabea. *Komandantea marmarka ari da agindu horiek absurdoak direlako. Egoera absurdo samarra zen. Zentzurik gabeko mundu absurdo bat zehatzu eta salatu zuten.*
- 2 iz. Adimen legeen kontrako egintza edo esana. *San Tomasentzat horretan ez dago absurdorik.*
- abudhabiar** 1 izlag. Abu Dhabikoa, Abu Dhabiri dago-kiona. *Abu Dhabiar merkataria.*
- 2 iz. Abu Dhabetikoa.
- abujar** 1 izlag. Abujakoa, Abujari dagokiona. *Abujar dendaria.*
- 2 iz. Abujakoa herritarra.
- aburu** 1 iz. Iritzia. *Besteren aburuak beste, goazen gauzei apur batez geure begiz, betaurrekorik gabe, begiratzen.*
- 2 iz. Funts handirik gabeko ustea, irudipena. *Aburuz ari da. Buru bezainbat aburu (esr. zah.).*
- aburumenka** adlag. Aburuaren, irudipenen arabera, iritzira. *Aburumenka mintzatu.*
- abusatu**<sup>1</sup>, abusa, abusatzen du ad. Gehiegi egin edo erabili. *Bere lagunen sineskortasunaz abusatu zuelako.*
- abusatu**<sup>2</sup>, abusa, abusatzen da ad. *Ipar. Jostatu, dibertitu. Ez du batere konprenitzen gazteek behar dutela abusatu.*
- abuztu** 1 iz. Urteko zortzigarren hila. *Ama Birjina Abuztukotik Eguberri bitartean.*
- 2 iz. (Data adierazteko, -en atzizkia hartzen duela). Abuztuaren 12an heldu ziren. Abuztuko hilaren hamabian. Abuztuaren bata astearte da aurten. Abuztuaren ezetorriko da. Abuztuaren batetik zortzira irekita egongo da. || (Aposizioan, -k atzizkia hartzen duela eta zenbakia artikulurik eta kasu markarik gabe). *Gaur, abuztuak 25, asteazkena. Datorren ostegunean, abuztuak 20, izendatuko da epaimahaia.*
- 3 iz. Uzta. *Abuztua biltzea. Bost urtetan ez zuten abuztu onik izan.*
- abzisa** iz. *Mat. Planoko puntu batek koordinatu bertikaletik duen distantzia. Abzisa eta ordenatua. Abzisa ardatza.*
- adabaki** 1 iz. Saretua edo zulatua dagoenari josten zaion oihal zatia. Ik. **petatxu**. *Jantzi mehe urratuari, adabaki lodiak josi zizkioten barrengo aldetik. Hemendik moztu, hortik ebaki, hango urratua pasaratu eta hemen adabakia ipini. Oihal zaharrari ez dagozkion adabakiak. Zarpail eta zikin jantzia, adabaki bat hemen, adabaki bat han. Adabakiz jositako kanpadenda. Adabaki batzuk konpontzen.*
- 2 iz. (Hedaduraz). *Ontziari adabaki bat ipini. Jauregi antzeko etxe lasai bat, zaharra, adabakiz bete.*
- 3 iz. (Irud.). *Nekazarien arazoei adabakiak jartzen. Gatazka ez da adabakiekin konponduko. Neurri hori adabaki bat baino ez dela salatu dute sindikatuek.*
- adabatu**, adaba, adabatzen 1 du ad. Adabakia ipini, konpondu. *Soinekoak eta abarkak adabatu. Bere aulkian eseri eta arropa adabatzen zuen. Zaku urratuak adabatzen betarik ez zuelako.*
- 2 iz. (Irud.). *Egin duen kaltea adabatu behar du. Ez da erraza izango engainua adabatzea.*
- 3 (Era burutua izenondo gisa). *Bere galeoi adabatuari aingurak altxaturik.*
- adabegi** iz. Enberrari adar bat biltzen zaion tokian eratzen den gune gogorra.
- adaburu** iz. Zuhaitz baten adar-abarren multzoa. *Lertxunaren adaburua. Adaburu biribila. Adaburu itzaltuaren azpian. Kaleko zuzarren adaburu beltzak.*
- adagio** 1 adlag. *Mus. Mugimendu motelez.*
- 2 iz. *Mugimendu moteleko musika lana edo zatia.*
- adaje** iz. Aberearen adarrak. *Oreinen adajeak zituzten apaingarriztat. Oso adaje zatarreko idia.*
- adaki** iz. Abar moztua, bereziki adaxkak eta hostoak kendu zaizkiona. *Adaki bat eskuetan hartuta. Suari adaki batzuk bota.*
- adar** 1 iz. Zerbait animaliak kopeta aldean dituzten hezurrezko luzakinetako bakoitza. *Akerrak adarrak okerrak ditu. Orein adar-zabala. Errinozeroaren sudur adarra. Adar bihurriak. Adarrak moztu. Idia adarrean [= adarretik] eta gizona hitzerean [= hitzetik] (esr. zah.). || Adarrak jarri, ipini: bikotekidea, beste batekin sexu-harremanak izanez, engainatu.*
- 2 iz. (Hedaduraz). *Barakuiluaren adarrak. Ilargiaren adarrak.*
- 3 iz. Zuhaitzaren enborretik ateratzen diren besoe-tako bakoitza. *Pagoaren adarrak moztu. Adarretara igo. Erroak utzirik adarrei lotzea. Katagorriak adarrez adar dabilta.*
- 4 iz. Oheburuko edo aulkia biziaren bizkarraldeko muturra. *Hantxe zeukan sotana, aulkia adarrean.*
- 5 iz. Adar hustu eta zulatua, musika tresna bezala erabiltzen dena. *Adar-hotsa entzunda.*
- 6 iz. Adar hustua, ontzi bezala erabiltzen dena. *Bete ezazu adarra olio.*
- 7 iz. Sirena (bigarren adieran). *Adarrak jotzen zuenean irtetzen ziren langileak langetatik.*
- 8 iz. Zerbait zatitzen den alderdi bakoitza. *Ibai horrek sardet egiten du, eta haren bi adarren artean bada zelai bat ederra eta guztiz aberatsa. Ez dakit bide adarrik onena hautatu ote zen. Erakundearen bi adarrak.*
- 9 iz. Giza jardunez mintzatuz, alorra. *Soziolinguistikaren adarra. Adar guztietako jakintsuak.*
- adarra jo** lseka egin, harpa jo, trufatu. *Niri behintzat ez didazu adarrik joko! Ziria sartzen eta adarra jotzen.*
- adarbakar** 1 izond. Adar bakarra duena. *Abere adarbakarra.*
- 2 iz. Adar bakarreko animalia mitologikoa. *Printzesa hil zuen adarbakarraren elezaharra.*
- adardun** 1 izond. Animaliez mintzatuz, adarrak dituen. *Abere adarduna. Ardi adarduna eta behi sabelduna (esr. zah.).*
- 2 izond. (Hedaduraz). *Deabrua bezala adarduna. Badaiteke gizona adardun izatea, zorigaitzoak jo badu, baina inolaz ere ez adarmotz, berez, jaiotzez, adargabea delako. Ez duzu ikusiko han ohe jaso eta adardunik.*
- adareta** iz. *Ipar. Golde mota, Euskal Herrian XIX. mendean erdialdean erabiltzen zirenen artean hoberena. Adareta sakon iraultzen du, paregabea da zelaietarako.*
- adargabe** izond. Adarrik ez duena. *Arbola adargabe baten ondoan. Badaiteke gizona adardun izatea, zorigaitzoak jo badu, baina inolaz ere ez adarmotz, berez, jaiotzez, adargabea delako.*

**adarjotze** iz. Adarra jotzea. *Barrezka jarraitu genuen txantxa eta adarjotze artean.*

**adarka** adlag. Animaliez mintzatuz, adarrez joka. *Idiren batek inor adarka hiltzen badu.*

**adarka egin** Adarkatu. *Behi zuri honek adarka egiten du.*

**adarkada** iz. Animalia batek adarrez emandako kolpea. *Behi batek adarkada jaurti zidan. Adarkada ederra hartu du.*

**adarkadura** iz. Enborra eta kidekoak adarretan bereiztea; horrela bereizten den adar bakoitza. *Sagar-rondoaren adarkadura. Bidearen adarkadura.*

**adarkatu**, adarka/adarkatu, adarkatzen **1 du** ad. Abere batek adar kolpez jo edo zauritu. *Zezenak adarkatu zuenean.*

**2 da** ad. Adarretan bereizi, banatu. *Bidea adarkatzen den gunean. Zuhaitz handi hostotsuak adarkatzen diren bezala. Tutuak ez du beste hertsigumerik biriketarantz adarkatu arte.*

**adarki** iz. Animalien adarrak eginik dauden gaia. *Adarkizko orrazia.*

**adartsu 1** izond. Landareez mintzatuz, adar asko dituen. *Zuhaitz lodi eta adartsu baten azpitik igarotzen zela. Adartsua eta orritsua.*

**2 izond.** (G. er.). Adarduna.

**adasdun** izond. Adatsa duena. *Gizonak adasdun izatea desohore du.*

**adats** iz. Buruko ileen multzoa, bereziki luzea dena. *Adatsa beltza zuen oso, kizkurtua eta luzea. Urrezko adats ugaria orrazten. Adatsa bildu. Adatsetik dilindan. Haren oinak bere adatseko biloez xukatu zituen. Adatsa laztu.*

**adausi** iz. Zaunka. *Txakur handiak adausi handia. Adausi bizian ari ziren Kriskitin eta Kraskitin.*

**adausi egin** Zaunka egin. *Guk, txakur mutuak bezala, ez daukagu ahorik adausi egiteko. Adausi degidala, baina ausiki ez nazala (esr. zah.).*

**adaxka** iz. Adar txikia. *Erramu adaxka bat eskuan. Zumar-raren adaxka eta hostoen artetik.*

**adberbio** iz. Hizkl. Aditza, adjektiboa edo beste adberbio bat mugatzen duen hitza. Ik. **adizlagun**. *Leku, modu, denbora adberbioak.*

**addisabegar 1** izlag. Addis Abekoa, Addis Abebari dagokiona. *Addisabegar agintariak.*

**2 iz.** Addis Abeko herritarra.

**adei 1** iz. Norbaitenganako begirune edo onginahia. Ik. **adeitasun**. *Oroit zaitetz, Jauna, zure errukiaz eta zure adeiaz.*

**2 iz.** (G. er.). Zeruko grazia.

**adei lege, adei-lege** Gizalegea. *Nagusitari adei legez dagokio mendekoekin eskuzabala izatea.*

**adeitasun** iz. Norbaiti adierazten zaion begikotasuna. *Guregana erakusten duten begirune eta adeitasuna. Gizonak atea ireki eta pasatzeko esan zidan adeitasun handiz. Adeitasunik gabeko agurra egin zion.*

**adeitasunez** adlag. Adeitasunez ez nion kontra egin. *Adeitasunez mahaiburua eskaini zioten. Adeitasunez agurtu.*

**adeitasunezko** izlag. Adeitasunezko trataera. *Adeitasunezko agurra.*

**adeitsu 1** izond. Adeitasunez jokatzeko duena. *Adeitsu zen bere maneretan. Gizon dotorea eta adeitsu. || Gu tratatzeko modu adeitsu eta ezta. Harrera adeitsu egin zioten, baina hotza.*

**2** (Adizlagun gisa). *Adeitsu hitz egin zidan. Besoak zabaldu zituen adeitsu.*

**adelatu**, adela, adelatzen **1 da/du** ad. *Batez ere Zub. Pres-tatu, apailatu. Axurikia ederki adelaturik. Bete adela-turik egoteko. Penitentziaz bihotzak adelatu.*

**2 da/du** ad. (G. er.). Konpondu. *Herriko guztiek bideak adelatu behar dituzte, urtean bi aldiz.*

**adendar 1** izlag. Adengoa, Adeni dagokiona. *Adendar idazlea.*

**2 iz.** Adengo herritarra.

**adia** iz. Deiadarra, auhena edo deitoreia, bereziki norbaiten heriotzak eragina. *Han daude oinazet leher-tzen, adiaz eta orroz. Negarrak eta adiak. Egizue negar eta adia.*

**adiaka** adlag. Adia eginez. *Adiaka egon.*

**adiakatu**, adia/adiakatu, adiakatzen **da** ad. Adia egin. *Negar egin dugu eta ez zarete adiakatu.*

**adibide** iz. Zerbait argitzeko edo ulertarazteko erabiltzen den aipu edo gertaera. Ik. **etsenplu**. *Adibideak jarri. Adibide gisa. Adibiderik ezagunena. Adibide argia, adierazgarria, jakingarria.*

**adibidez** adlag. Esate baterako, esaterako. *Har dezagun, adibidez, lehen kapituluak dioena.*

**adi egon da** ad. Erne egon, eta bereziki begiratu, entzun. *Jaungoikoa beti dago adi eta begira. Niri adi dago. Elkar-rren adi egon.*

**adiera 1** iz. Hitz baten esanahia, eta bereziki, bat baino gehiago dituen, haietako bakoitza. *45.000 hitz; 57.000 adiera. "Kutsu" hitzaren adierarik zabalduena. Hitz ugariak, aberatsak, adiera bereziz josiak behar ditugu.*

**2 iz.** (G. er.). Adimena, ezaguera.

**3 iz.** (G. er.). Arreta, oharmena.

**adierazgarri 1** iz. Zerbait adierazten duen gauza. Ik. **seinale**. *Besoan zeraman taldearen adierazgarria. Euskara, Euskal Herriaren adierazgarri nagusia. Gaitz ezkutuaren adierazgarri diren agerpenak.*

**2 izond.** Zerbait argi eta egoki adierazten duena. *Adibide adierazgarriak aipatu ditu. Liburuak izenburu benetan adierazgarria darama.*

**adierazi**<sup>1</sup>, adieraz, adierazten **1 du** ad. Aditzera eman, jakinarazi. *Ederki, garbi adierazi. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen. Ezin adierazi den poza. Zer adierazi nahi duzu horren bitartez?*

**2 du** ad. Zerbaitek halako esanahia izan, zerbaiten seinale edo ikur izan. *Onetsi euskal hitza da, baina ez du "bedeinkatu" adierazten, "maitatu" baizik. Batuketa adierazteko "+" ikurra erabiltzen da.*

**adierazi**<sup>2</sup> iz. Hizkl. Hizkuntza ikurraren edukia. *Adierazlea eta adierazia.*

**adierazkor** izond. Bizitasunez edo argiro adierazten duena. *Hitz adierazkorren ortografia. Bizia eta adierazkorra bada, zertarako behar du garbia izan?*

**adierazle 1** iz. Interpretea. *Eta ez zekiten Josek aditzen ziela, adierazlearen bitartez hitz egiten zielako. Mundu guztiko hizkuntzen ezagutza eman zien, bide hartaz adierazlerik gabe elkar ulertzeko.*

**2 iz.** Exegeta. *San Paulo, Ebanjelioaren adierazle zorrotza.*

**3 iz.** Beste norbaiten edo zerbaiten nahia edo sentimena aditzera ematen duen gauza. *Inoren ezinegonaren adierazle bihurtu. Begiak, bihotzaren adierazleak. || Bidali, Jauna, zerorren uso bake-adierazlea.*



- 4 iz. *Hizkl.* Hizkuntza ikurraren forma. *Adierazlea* eta *adierazia*.
- 5 iz. *Ekon.* Ekonomiaren egoera eta garapena adierazten duen datua. *Abuztuan automobil berrien salmentak behera egin zuen eta adierazle hori oso erabilia izan ohi da kontsumoaren joera ikusteko.* Euribor adierazlea %2,297ra igo da maiatzean.
- adierazpen 1** iz. Adieraztea, azalpena. *Hitz ezezagunen adierazpena.* Ikasgaiaren adierazpenean.
- 2 iz. Jendaurrean zerbait aditzera emateko egiten den izkribua. Ik. **agiri**. *Euskaltzaindiak bere VIII. Biltzarren ondoan adierazpen hau agertzen du.* Gobernuaren adierazpena.
- 3 iz. Norbaitek bere barnean duena adieraztea, bereziki hizkuntzaren bidez. *Adierazpen askatasuna.* Sentimenez adierazpena. *Adierazpen teknikak.*
- 4 iz. Ikur edo zenbakien bidezko forma matematikoa.
- adierazpide** iz. Aditzera emateko bidea. *Kanta adierazpide gisa erabili.* Hizkuntza da gizakiaren adierazpide nagusia.
- adierraz** izond. Aditzen erraza. Ik. **ulerterraz**. *Hitz adierazpen bidez.* Nornahirentzat adieraz eta irakurgarria izateko.
- adigai** iz. Kontzeptua. “Nazio” adigai. *Adigai desberdinak hitz desberdinez adierazi.*
- adigaitz** izond. Ulergaitza. *Euskara landua du, baina edozein irakurlerentzat adigaitza.*
- adikatu**, adika, adikatzen da ad. *Nekatu.* *Idiak, lan asko eginda adikatu direnean.* Adikatzen da emaila, eta ez hartzailea (esr. zah.).
- adimen** iz. Ulertzeko edo ikasteko gaitasuna; pentsamendu bidez norbaitek bere buruaz eta inguruaz jabetzeko duen ahalmena. *Oroimena, adimena eta borondatea.* Adimen laburra, argia. Adimen kamutsa dudalako edo. Adimenik gabeko izakiak. Adimena argitu. Adimena zorrozteko sortua zen jostaketa. Adimen urritasuna. Adimen test bat. Adimen artifiziala. Hitzek badute beste zerbait, adimenez nolabait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak uki dezakeena.
- adimendu** iz. Adimena.
- adin<sup>1</sup>** 1 iz. Norbait edo zerbait sortu zenetik igaro den denbora. *Zer adin duzu? Adin berekoak.* Adinez nagusia. Edozein adinetako zaldientzat. Zuhaitz baten adina. Unibertsoaren adina.
- 2 iz. Giza bizitza, denborari dagokionez. *Bi semeak adinaren lorean hil zitzaizkion.*
- 3 iz. Bizitza banatzen den zati bakoitza. *Hiru adinak; gaztaroa, adin ona eta zahartzaroa.* Adin guztiak elkarri darraizkio.
- adinean sartu** Adinean sartutako langile ugari daude Urdulizko lantegian. Berrogeita hamar urteko gizon adinean sartua zen.
- adinetara heldu** Adinetara helduak garenok esango dugu halere, XX. mendean Euskal Herria ez dela lo egon.
- hirugarren adin** Zahartzaroa. Hirugarren adinekoen elkartea. Hirugarren adinekoentzat sarrera doan.
- adin<sup>2</sup>** iz. Bizk. (Zah.). Adimena.
- adina 1** Erkaketan, kopuru berdintasuna adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. **beste<sup>2</sup>**; **bezainbat**. Andonik Josebak adina diru du. Ez baita libururik hiztegi batek adina huts bil dezakeenik. Guretat adina (gauza) ekarri du zuentzat. Bekatuak, diren eran eta diren adina aitortu. Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adina. Behar adina (gauza) ikasirik daudenean. Ahal adina diru bilduz. Zu airean bidaltzeko adina indar badu.
- 2 (izan aditzarekin). Zu adina naiz etxe honetan.
- adinako** adina hitzari dagokion izenlaguna. Zu airean bidaltzeko adinako indarra badu. Pentsa daiteke gaurko egunez ezin dezakegula bestetan adinako sinesterik izan arrazoi hutsaren indarrean. Hasiera horrek izan ditu ondoreak, ez halere behar adinakoak.
- adinbat** Adina. Bada, nik honi zuri adinbat eman nahi diot. Behar adinbat argitasun izan dezan. Ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituria ez dutenentzat.
- adindun** iz./izond. Adinekoa. Anton. **adingabe**. *Elkarrizketa batean adindun batek esaten zuenez.* Adindunen artean. Soldadu adinduna. [Oharra: zahar-en leungarria da].
- adineko** izlag. Adin handikoa, adinean sartua. Adineko idia ez da gaztea bezain balios. Hamabost urte ozta zituen, eta buru-argiz, gizon adineko eta ikasi zenbait baino areago zen. Adineko azkaindar gehienek ezagutu dute. Hasi berriei adineko garenoi bezain nekeza gerta ez dakien. Adinekoak eta gazteak.
- adingabe** izond. Zerbaitetarako aski adin ez duena. Anton. **adindun**. Mendi lanerako oraindik adingabea da haur hori.
- adingabeko** izlag. Adingabea.
- adinon** izond. Ez ona eta ez txarra; ez ongi eta ez gaizki; ez gehiegi eta ez gutxiegi. Adinon izatea komeni zaigu. Adinon egon. Adinon da bost ume, alaba bi eta hiru seme (esr. zah.).
- adintsu** izond. Adinekoa. *Haur txikiak bezala pertsona adintsuak.*
- adio 1** interj. Joatean agurtzeko erabiltzen den hitza. Ik. **agur**. *Adio ene maitea, adio sekulako.* Adio, hurrengo arte.
- 2 interj. Akabo. *Adio haren esne, arrautza eta txitak.*
- 3 iz. Agurra. *Ene azken adioa.* Adiorik minena.
- adio(ak) egin 1** Utzi. Era honetan betiko adio egin zenien deabruari, munduari eta haragiari.
- 2 Norbaiti, urruntzerakoan, agur esan. *Anaiei adioak eginik sartu zen Iruñean.* Adio egingo dizut han pasatzean. Lagun zaharrek eta adiskideek hilobiaren aitzinean egin dizkiote adioak.
- adio esan, adio erran 1** Utzi. Aberastasunei adio esan.
- 2 Norbaiti, urruntzerakoan, agur esan. *Zergatik joan dira adiorik esan gabe? Gure lagun maiteei adio esatea.* Adio erran gabe etxetik partitua.
- ez adiorik** Adioa adierazteko esapidea. *Gure artean ongi zinena apartatu zara fite, ez adiorik, lagun maitea, eta beraz ikusi arte!*
- adiskidantza** iz. Adiskidetasuna. *Gure adiskidantza lokaerriak.*
- adiskide 1** iz. Norbaiti adiskidetasunez lotua dagoen pertsona. Ik. **lagun**. Mikelen adiskidea da. Adiskideak gara. Adiskide bihotzekoa. Aspaldiko adiskidea. Adiskide leiala, zintzoa. Ez gara elkarren adiskide agertu beti. Bizitza gaiztokoan adiskidea. Adiskide ustekoak murgildu zuen putzuan. Asko zor diot Aingeru Irigarai adiskide zenari. Azkeneko hiru adiskidea ez dakit, baina Vinsonen laguna zen. Bere adiskide Aita Rocco domin-gotarra zuela lagun. Gogaide ez baina bai adiskide.

## adiskidetasun

- 2 iz. (Bokatibo gisa). *Ikusi arte, adiskidea, beha iezaguzu zerutik!*
- 3 iz. (Hedaduraz). *Animalien adiskidea.*
- adiskide handi** Adiskide mina. *Haren adiskide handi batek, Portugalgo erregeak.*
- adiskide kutun** Adiskide mina. *Galdutako adiskide kutun hura egiazkoagoa baitzen amestutako jainko bat baino.*
- adiskide mami** Adiskide mina. *Amaren adiskide mami batekin.*
- adiskide min** Askotan ikusten den edo barrukotasunez tratatzen den adiskidea. *Geroztik izan zaitut adiskide mina. Gramatikak baditu gure artean adiskide minak eta etsai amorratuak.*
- adiskidetasun 1** iz. Bi pertsonak elkarrengana duten begikotasun edo atxikimendua, odolean edo sexuan oinarritzen ez dena. Ik. **adiskidantza**. *Adiskidetasun sendoa. Lotzen gaituen adiskidetasuna. Adiskidetasun zorren kitagarri. Gure arteko adiskidetasuna hautsi zenean. Haren adiskidetasunean bizitzeagatik. Adiskidetasunezko hitzak, musuak, loturak. Zaletasunak eta adiskidetasunak baztertuz. Adiskidetasuna eta maitasuna. Orixe eta Lizardiren adiskidetasuna nahi nuke gogoratu. Harenganako adiskidetasuna. Inoiz adiskidetasunak esan duen esaldirik ederrena.*
- 2 iz. (Irud.). *Herrien arteko adiskidetasuna.*
- adiskidetu**, adiskide/adiskidetu, adiskidetzen *da/du* ad. Adiskide bihurtu, bereziki haserreturik edo etsaiturik zeudenak. *Adiskidetu nintzen ostatuko ugazaba andrearekin. Lehengo elkar ezinikusi guztiak utzita, biak adiskidetu ziren. Adiskidetu da bere emaztearekin. Jainkoarekin adiskidetzen gaituen grazia.*
- aditu**<sup>1</sup>, adi, aditzen **1 du** ad. Entzun. *Urruti dago eta ez dizu aditzen. Guk geuk bere ahotik esaten aditu diogu. Belarriak dituenak aditzeke, adi beza. Ez duzue haren ahotsa plazetan adituko. Aditu zen zerutik mintzo bat.*
- 2 du** ad. Ulertu. *Entzungo dute eta ez dute adituko. Erdara aditzen ez dutenak. Aditzen dut zer esan nahi duen. Ezin adituzko hitz bat.*
- 3 du** ad. Usaimenaz sumatu. *Nik behintzat ez dut erre usainik aditzen.*
- elkar aditu** Ados jarri. *Ene ustez, munduko emazte guziek behar genuke elkar aditu, haurrik ez gehiago ukaiteko!*
- ez aditu(arena) egin** Entzunger egin. *Ez adituarena egin ziola.*
- [Oharra: *aditu*, Hegoaldean, *dio* aditza da, pertsona bati dagokionean (*aditu dizugu*) eta Iparraldean, *du* aditza (*aditu zaitugu*)].
- aditu**<sup>2</sup> izond./iz. Zerbeitetan jakinduria duena, zerbaitez dakiena. *Lege kontuetan adituek diotenez. Aditu bati iritzia eskatu. Hitzetan aditua eta aditzen gorra. Gizon aditua da.*
- aditz** iz. Hizkl. Ekintza, egoera edo gertaera bat adierazten duen hitza, bertan gauzatzen diren denbora, pertsona etab.en arabera aldatzen dena. *Aditza eta izena. Euskal aditza. Aditz iragangaitza, iragankorra. Aditza orainalditik lehenaldira aldatu. Aditza jokatu. Aditz morfologia. Aditz sintagma.*
- aditz-izen** Hizkl. Izenaren funtzioa bete dezakeen aditz forma ez-jokatua, *-tze* atzizkiarekin eratzen dena. *Aditz izenetako morfemetan ez da erabateko batasunik.*

- aditz laguntzaile** Hizkl. Funtzio gramatikal hutsa duen adizkia. *Aditz laguntzaile batuaren ezaugarriak esanguratsuenak.*
- aditzaile 1** iz. Ulertzen duen pertsona. *Erabateko iritzia emana dago; aditzaile onak ez du besteren beharrik. Aditzaile onari, hitz gutxi (esr. zah.).*
- 2 iz. Entzulea. *Aditzaile anitz joaten baitziren beren irratira. 400 bat aditzaile baginen, apaiz eta apaizgai.*
- aditze** iz. *aditu* aditzari dagokion ekintza. *Aditze hutsarekin.*
- en aditzea izan du** ad. Entzutez ezagutu. *Badut horren aditzea. Aditzea badut ez direla onak. Ez du gure lanbidea, aditzea dudanez, inongo elizak eskumikatu ez inongo legek debekatu.*
- aditzera eman du** ad. Jakinarazi, azaldu, jendaurrean zerbait agertu. *Aditzera eman diot. Alkatearen aginduz aditzera ematen da.*
- [Oharra: *jakitera eman* baino egokiagoa da].
- aditzoin** iz. Hizkl. Aspektu markarik gabeko aditz forma. *Aditzoinez osaturiko hitz elkarteez. ekarri aditzaren aditzoina ekar da.*
- aditzondo** iz. Hizkl. Adberbioa. Ik. **adizlagun**. *-ki elementuari esker dakigu hitz hori aditzondoa dela.*
- adizkera** iz. Hizkl. Adizkia.
- adizki** iz. Pertsona markak hartzen dituen aditz forma. *Adizkien egitura. Aditz laguntzailearen adizkiak. Nor-nori adizkiak. Hiru pertsonarekiko adizkiak.*
- adizlagun** iz. Hizkl. Adberbioa; euskal gramatikan adberbio betekizuna duen izen kasu-atzizkiduna. *Izenlagunak eta adizlagunak.*
- adjektibo** iz. Hizkl. Izena nolakotasunean edo zehaztasunean mugatzen duen hitza. Ik. **izenlagun; izenondo**. *Latinezko adjektibo motak. Zuhur adjektiboa. Adjektibo betekizuna duten perpau txertatuak.*
- adjudikatu**, adjudika, adjudikatzen *du* ad. Esleitu.
- administrari 1** iz. Administrazioeko langilea. *Erromatar soldadu, kolonizatzaile eta administrariak zabaldu zuten latina.*
- 2 iz. Bulegoko langilea. *Administrariak eta administrari laguntzaileak.*
- administratu**, administra, administratzen **1 du** ad. Pertsona edo erakunde baten ondasunen arta izan. *Markesaren lurak administratzen ditu.*
- 2 du** ad. Estatuaren edo barruti baten administrazioaz arduratu. *Alkateak administratzen du udala.*
- administratzaile** iz. Ondasun bat administratzen duen pertsona. *Etxaldearen administratzailearen bulegoan. Gure aitaren administratzailea eta Villagrandeko dukearen idazkaria.*
- administrazio 1** iz. Administrazioa. *Elkarte baten administrazioa. Administrazio eraginkorra.*
- 2 iz. Lurralde baten gobernu gauzatzea. *Frantziar, departamenduen administrazioa prefetei dagokie. Administrazio arazoak.*
- 3 iz. (Gehienetan A larriz). *Gobernu erakundeen multzoa. Administrazioak herritarrekin izaten dituen harremanetan. Sententzia Administrazioaren aldekoa izan da. Administrazio publikoko eledun batek esan duenez.*
- adoratu**, adora, adoratzen *du* ad. Jainkotzat hartzen den norbait edo zerbait gurtu. *Jainko bat adora ezazu, halaber maita osoki. Jentilek eguzkia adoratzen zuten.*

**adore** 1 iz. Kemena, bizidunen indarra. *Bata da sendoa, indartsua; bestea argala eta adore gutxikoa. Hordiak beso eta zangoetan adorerik ez izan arren.*

2 iz. Oztopo, neke eta arriskuei aurpegi emateko edo gauzei ekiteko gaitasuna. *Larriturik, ezertarako adorerik gabe. Adinarekin adorea galdu. Ez dut horretarako behar den adorea. Agiria izenpetzeko adorerik ez zuen izan.*

**adore eman** *Izu-ikaraz dar-dar zegoen gorputzari adore eman nahirik. Elkarrri adore eman. Kristoren zerbitzuan aholku eta adore emateko. Herriz herri ibili zen ahul zenari adore eman.*

**adoretsu** 1 izond. Adorea duena, adore handikoa. *Langile iaio eta adoretzuak. Adoretzua eta koldarra.*

2 adlag. Adorez beterik. *Adoretzu jarraitzen du lanean. Adoretzu eta kartsuki predikatu.*

**ados** 1 adlag. Tanto kopuru berean. *39an ados eta batek galdu behar.*

2 interj. Iritzian bat etortzea adierazten duen hitza. *Irri eginez, ihardetsi omen zion: ados!*

**ados egon** Ados izan. *Horretan ados gaude guztiok.*

**ados etorri** Bat etorri. *Ados dator haiekin.*

**ados izan** 1 Kiroletan eta lehiaketetan, pilota jokoan bereziki, tanto kopuru bera izan. *24na ados ziren. 11n eta 32an ados izanik zuberotarrak nagusitu dira. Bi hautagaiak ados dira, 20na botorekin.*

2 Bat etorri, iritzi berekoa izan. *Puntu guztietan ados direla adierazi dute. Ados naiz zurekin.*

**ados jarri** Ados etorri; ados etorrarazi. *Ados jarri ditu. Ezinezkoa gertatzen bada lankideak ados jartzea.*

**adostasun** iz. Ados etortzea edo egotea. *Ez zegoen adostasunik: batzuen ustez, ohorezko jaun bat zen; beste batzuen iritzian, morroi izandako bat.*

**adreilu** iz. Buztinezko pieza, paralelepipedo formakoa, labean errea, eraikuntzan erabiltzen dena. *Harriaren ordezkari adreilu erabili. Adreilu gorritzko etxez inguratua. Adreiluaren kolorekoa. Adreiluzko hesia. Paper-mutur erdi belztu bat atera nuen adreiluaren zirrikietako batetik.*

**adrenalina** iz. *Biokim.* Giltzurrun gaineko guruinei darien hormona, odol zainak estutu eta bihotz taupadak bizkortzen dituena.

**adriatiko** izond. Itsaso Adriatikoari dagokiona. *Kostalde adriatikoan.*

**adua** 1 iz. Administrazioaren adarra, atzerriko salgaiei ezartzen zaien zergaz arduratzen dena. *Aduana errentak. Aduana zerbitzua. Aduana bulegoan. Beren zakuak eskuratu eta aduana pasatu zuten. Aduanan enplegatua.*

2 iz. Aduana bulegoak dauden lekua edo etxea. *Aireportuko aduana. Aduana Bidasoara eraman zuten.*

**aduanazain** iz. Aduanako funtzionarioa.

**adur**<sup>1</sup> iz. Ahotik jariatzen den txistua. Ik. **lerde**. *Adurra zerion ezpainetatik gazta jan nahiaz. Adurra dariola. Umeek adurra izaten dute ugari.*

**adur**<sup>2</sup> 1 iz. Zoria. *Adur txarra orpoz orpo dabilkizulako. Adur ona, gaiztoa. Adur samina!*

2 iz. Zenbait gauzaren indar ezkutu harrigarria. *Makila horrek ba omen zuen adur ikusgarria.*

**aerodinamika** iz. *Fis.* Mekanikaren alorra, airearen mugimendua eta airean dauden gorpuztena aztertzen dituena. *Aerodinamika saioa.*

**aerodromo** iz. Hegazkinak aireratzeko eta lur hartzeko prestatutako toki, aireportua baino txikiagoa. Ik.

**aireportu**. *Ablitas herriko aerodromoa baliatuko dute militarrek.*

**aeronautika** iz. Airez ibiltzeko teknika ikertzen duen zientzia. *Krisian dago aeronautika industria.*

**aeronautiko** izond. Aeronautikari dagokiona. *Erakustaldi aeronautikoa: aeronautika erakustaldia.*

**aerostato** iz. Gas arin batez betea dagoen aireontzia. *Aerostatoak atmosferan burrunba egiten zuen.*

**afaldu**, afal, afaltzen *du edo da* ad. Afaria hartu. *Etxean hamarretan afaltzen dugu. Elkarrekin afaldu zuten. Lukainka eta taloa afaltzeko. Bi sardina jan ditut afaltzen. Zer jan duzue afaltzeko? Ez gara afaldu zaharrak. Oilasko guri-guriak afaldu genituen: afaltzen oilasko guri-guriak jan genituen. Gosaldu, bazkaldu, askaldu eta afaldu eta ogasuna galdu (esr. zah.).*

[Oharra: *afaldu*, Hegoaldean, *du* aditza da (*gaur goiz afaldu dugu*) eta *da* aditza Iparraldean, (*gaur goiz afaldu gara*)].

**afari** iz. Iluntzean egiten den otordua. *Afaria prestatu. Afariak on egin, gaitz egin. Mikelekin egindako afari hartan. Afari arina. Familia afaria. Azken afaria.*

**afari lege**, **afari-lege** Afari arina. *Gaua pasatzeko aterpea eskaini zioten, baita afari legea ere. Etxera iritsi, afari legea egin eta ohean sartu zen. Afari legea egin eta orbel gorriaren gainean etzan ziren.*

**afari-merienda** Ilunabarrean egiten den otordua. *Hogeita bost lagunek afari-merienda dugu gaur Olerrian.*

**afaritako** Afaltzeko. *Afaritako lekua. Afaritako ez zela falta arraina saltsan.*

**afaritan** Afaltzen. *Afaritan ari ginela. Anitz edan afaritan.*

**afaritarra** Afaltzera. *Afaritarra joan.*

**afera** iz. Egitekoa, arazoa. *Hori ez da nire afera. Neure diru aferekin kezkatzen ninduten.*

**afeganiar** 1 izlag. Afganistangoa, Afganistani dagokiona. *Afeganiar iheslariak.*

2 iz. Afganistango herritarra.

**afeganiandar** 1 izlag. Afganistangoa, Afganistani dagokiona. *Afeganiandar nekazari bat.*

2 iz. Afganistango herritarra.

**afixa** iz. Hormetan itsasten den iragarkia. Ik. **kartel**. *Filma iragartzen duen afixan emakume bat ikusten da.*

**afrikaans** iz. Hegoafrikar Errepublikan mintzatzen den nederlandar hizkera.

**afrikaerditar** 1 izlag. Afrika Erdiko Errepublikakoa, Afrika Erdiko Errepublikari dagokiona. *Afrikaerditar agintariak.*

2 iz. Afrika Erdiko Errepublikako herritarra.

**afrikar** 1 izlag. Afrikakoa, Afrikari dagokiona. *Afrikar dantzariak.*

2 iz. Afrikako herritarra.

**afrodisiako** izond./iz. Sexu sena pizteko ahalmena duena. *Gai afrodisiakoak. Ez dute afrodisiako behar handirik halere.*

**agata** iz. Silize kristaldu mota, bere edertasunagatik harribitxiztat erabiltzen dena. *Agatazko apaingarriak.*

**agergarri** iz. Zerbait agertzen edo agerrarazten duen gauza. *Gure bihotzeko saminaren agergarritzat. Oraina etorkizun dugun geroaren agergarri izan daitekeen aldetik. Apaltasuna da edertasunaren agergarririk hoberena.*

**ageri** izond. Ezkutua ez dena, nabaria. Anton. **estali**. *Leku ageria. Ene izterbegien, isilen edo agerien, eskuetatik*

## agerian

salbatzeko. *Baduela Deabruarekin hitzarmen ageririk edo estalirik. Gauza ageria eta nabaria da. Hitz ageriz esan.*

**agerian** adlag. Begien aurrean, begi bistan, ikusteko moduan. *Agerian, eta ez ezkutuan. Agerian eta guztiek ezagutzeko eran. Gobernari jauna, agerian dago egin behar dena. Azkenean ez da izango bekatu hain txikirik non Jaunak agerian jarriko ez duen. Agerian hitz egin: jendaurrean hitz egin.*

**ageri-agerian** (agerian-en indargarria). *Ez dago gorderik, ageri-agerian baizik. Batzuek ageri-agerian dauzkate ezaugarriak, beste batzuek ezkutua. Poeren ipuinak erakusten digun teknika berberaz: ezkutatu nahi dena ageri-agerian jarritz.*

**ageri izan**, ageri, ageriko **1** da ad. Ikusgai bihurtu, begi bistan azaldu, ezagun izan. *Garbi ageri da horren bihotz ona. Honetan ageri da gure historiografiak hezur muinetaraino sarturik duen gaitza. Liburu horretan ere ageri da hitz hori. Orduan ageriko dira haien amarruak. Hiri larrienetarik behera, erdara ageri zaigu gero eta nagusiago. Tontor horretatik itsasoa ageri da. Kea den lekuan ageri da badela sua. Hire aurrerabidea ageri dadin guztien aurrean. Haren lanetan ageri denez.*  
**2** du ad. Erakutsi; ikusgai, ezagun izan. *Aukeratu diren zatiek batasun gutxi ageri dute. Ageri duzu ez zarela hemengoa.*

**ageriko** izlag. Agerian dagoena, agerian ikusten dena. **Ik. jendaurreko; publiko.** Politikarien ageriko bizitza. *Ageriko oiletak debekatuta daude igande eta jai osoetan. Azaletik zuzenak ziren; hau da, gauza agerikoetan on irudia egiten zuten. Herri askotatik batzen dira plaza agerikoetara gizonak milaka. Ageriko zorrak. Ageriko kontu korrontea. Ageriko aurrezkia.*

**agerkari 1** iz. Aldizkaria, bereziki erakunde batena. *Euskera agerkaria, Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, 1920. urtetik argitaratzen dena. 1957an Gazte eta Herria agerkarietan parte hartzen hasi zen.*  
**2** iz. (G. er.). Agerpena.

**agerkera** iz. Agerpena. *Jainkoaren agerkera Moisesi.*

**agerpen 1** iz. Agertzea. *Bere agerpen publikoetan. Fatimako Ama Birjinaren agerpena. Ez zituen atsegin sentimenduen gehiegizko agerpenak. Izurria naturaren halabeharrezko agerpen bat besterik ez da.*

**2** iz. Errebelazioa. *Izan ere, ez dut ikasi gizonengandik, Jesu Kristoren agerpenez baizik.*

**agerraldi 1** iz. Norbait edo zerbait agertzen den aldia. *Sarritan agertu zitzaion Kristo; halako agerraldi batean esan zion: (...). Urriaren 22an egin zuen eritasunak bere lehen agerraldia. Fatimako agerraldiak.*

**2** iz. Letrez, hitzez eta kidekoen mintzatuz, horietako bat agertzen den aldi bakoitza. */t/ fonemak bi agerraldi ditu tente hitzean. Atso hitzaren agerraldiak Garoa eleberrian.*

**3** iz. Bisita.

**4** iz. Antzerki lanetan, ekitaldi bat banatzen den zati bakoitza. *Bigarren ekitaldia, hirugarren agerraldia.*

**5** iz. Argitaraldia.

(kale) **agerraldi** Manifestazioa. *Milaka polizia aurrean zituztela egin zuten kale agerraldia.*

**agerrarazi**, agerraraz, agerrarazten **1** du ad. Agertzera behartu. *Biluzik agerrarazi zuten. Piarres eta Joanes agerrarazirik buruzagiaren aitzinerat. Andre gaizto hark bazekien hilak agerrarazteko eskurik ez zuela.*

**2** du ad. Erakutsi, agerian ipini. *Azkenean ausartzen da irriño bat ezpainetan agerraraztera. Gure euskalkiak funtsean bat egiten dituen agerrarazi beharra dago. Bere errugabetasuna agerrarazteko.*

**3** du ad. Argitaratu.

**agertoki** iz. Antzoki eta kidekoetan, ikuskizuna antzetzten den lekua. *Agertokian sartzean. Agertokiak egongela bat irudikatzen du. Lehenengo ekitaldiko agertoki bera. || Hizlariak agertokitik mintzatu ziren.*

**agertu**, ager, agertzen **1** da ad. Ikusgai bihurtu, begi bistan azaldu. *Ez da deus estalirik agertuko ez denik. Sugetzar bat agertu zitzaion bidean. Gizon onen aurrean agertzeko bihotzik ez zuen. Ilunpe beltzen artean, haatik, agertu zitzaigun argia.*

**2** da ad. (Izenondo soil edo adizlagun baten eskuinean). *Leial ager zaituz. Jakintsu agertu nahi dutenak. Eragile gisa agertu naizenez gero.*

**3** da ad. Epaile edo kideko batek deiturik haren aurrean aurkeztu. *Epailearen aurrean agertu behar izan zuen.*

**4** da ad. Berez ikusten ez direnez mintzatuz, ikusteko eran azaldu. *Jaunaren aingerua agertu zitzaion. Gesaltzan Ama Birjina agertu baino lehen.*

**5** du ad. Estalirik edo gorderik zegoena ezagutarazi, argitara edo jendaurrea atera. *Nahiago baitu bere hutsa estali baino, agertu. Jaunak agertu duen guganako onginahia. Sekula euskalduntzeko gogorik agertu ez duten erdaldunak. Ongi irabazia du gaur bere herriak agertzen dion esker ona. Batbederak zer duen gogoan besteri agertzeko. Ez dute oraindik beren iritzia agertu.*

**6** du ad. Argitaratu.

**7** du ad. Erl. Errebelatu. *Eta Jainkoak guri agertu digu hori Izpituaren bidez.*

**agertze** iz. agertu aditzari dagokion ekintza. *Beste anitz agertze egin zituen Jesusek. Bekatuen agertze osoa.*

**agian 1** adlag. Beharbad, apika. *Agian ongi hartuko nauzulako ustean. Agian hilko da, baina agian ez. Hiruretan Lizardik du agian idazle bezala entzuterik handiena.*

**2** interj. (Geroaldian doazen aditezkin). *Ipar. Zerbait gertatzeko desira adierazteko erabiltzen den hitza. Ik. ahal 3; baldinba; baldinbaitere; oxala. Agian luzaz biziko dira elkarrekin. Gure hizkuntza ez da galduko agian! Agian hilen haiz!: hilko ahal haiz! Agian ez! Menturaz bihar?, agian!*

**agidanez** adlag. Dirudinez, itxura denez. *Ez ziren denak gogaide minak, agidanez, ezta hizkuntza auzietan ere.*

**agindu<sup>1</sup>** **1** iz. Norbaitek beste norbaiti agintzen edo manatzen dion gauza. *Arkupean ipini dute Alkate jaunaren agindua. Jainkoaren agindu santuak haustea. Udalaren aginduz. Agindu orokorrak. Armadak etxeratze agindua ezarria zuen. Hamar aginduak.*

**2** iz. Promesa, agintzaria.

-**en agindu(eta)ra** adlag. *Jarri zituen gure agindura bere eskuetatik iterdako gauza guztiak. Seme-alabek egon behar dute bere gurasoen agindura. Kapitain jaunaren aginduetara!*

**agindu<sup>2</sup>**, agin, agintzen **1** du ad. Norbaitek, duen eskuaz baliaturik, egin behar dena adierazi. **Ik. manatu.** *Nork agintzen du etxe honetan? Ezer ez esateko agindu zion. Alkateak agindu duenaren arabera. Elizak agintzen dizuna. Barrenak agintzen zion bezala egin zuen.*

**2** du ad. (Medikuak eriarri). *Sendagileak antibiotikoa agindu zion.*

- 3 du ad. Norbaiti lan jakin bat gauzatzeko esan. *Unibertsitateak agindu didan txosten hau. Agindu diodan uztarria egin duen galdetu diot.*
- 4 du ad. Hitzeman. *Emango dut agindu dudana, esan dudana beteko dut. Barkatuko ziola agindu zion. Agindutako saria.*
- 5 du ad. Salerosketan, eskaini. *Heldu zen erosteko base-rriko jaun bat eta agindu zituen hirurogei dukat.*
- 6 du ad. Baimena eman, utzi. *Eguraldiak agintzen badu. Baina bere egoerak ez zion agintzen. Bere ahalak agintzen zion neurrian lagunduko ziola. Barrenak ez dit agintzen isilik egotea.*
- 7 (Era burutua izenondo gisa). *Lur agindura joateko. Agindua zor.*
- aginpide 1** iz. Agintzeko boterea edo eskua. Ik. **autoritate**. *Adinean, duintasunean edo aginpidean nagusiak direnak. Espainiako erregeak beste erresuma bateko lurretan aginpidea balu bezala. Aginpidea herriagan datza. Alkateak ez du arazo horietan aginpiderik.*
- 2 iz. (Irud.). *Zure hitzek gugan duten aginpidea.*
- 3 iz. Agintea. *Buruzagi baten aginpide barrutia. Aginpidea eskuratu, hartu.*
- 4 iz. Kargua. *Koronel esaten dioten aginpidea zuen.*
- agintarazi**, agintaraz, agintarazten du ad. Agintzera behartu. *Ez dut uste behar beste jan duenik, eta aurre-rantzean ganoraz jango duela agintarazi diot.*
- agintari** iz. Agintea duen pertsona. *Udaleko, estatuko agintariak. Herri agintariak. Apaizek ere, inoren aitortza entzuteko, beren agintarien baimena behar dute. Agintarienganako gorrotoa. Ordu hartan Neron zegoen agintari.*
- agintaritzea** iz. Agintea edo aginpidea gauzaten den erakundea edo kargua. *Herri agintaritzea. Behin agintaritzan jarriz gero, nor kendu? Agintaritzea utzi. Agintaritzak hautatua. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.*
- aginte 1** iz. Agintzen duenaren eskua edo boterea. Ik. **aginpide**. *Erregekoek jaiotza hutsez hartzen zuten agintea Jainkoagandik. Gurasoei opa izan diet lehen-bailehen mundu honetatik joatea, etxeko agintea eta ondasunak hartu nahiz. Herri osoaren gainean eskura dezaketen aginte neurrigabearen beldurra. Aitoren seme katolikoei aginte guztia kendu zien gobernua. Agintea eta indarra duen klasea. Haren agintearen azpian bera aurrena jarririk. Agintearen gailurra ukitu zuena. Aginte gosea. Aginteaz jabetu. Erregela horrek eremu zabalagoan zuen agintea.*
- 2 iz. Agindua, manua.
- aginte makila, aginte-makila** Agintari kargua irudikatzen duen makila. *Prozesioan joaten zen dotore erregea, koroa eta aginte makila zeramala. Allande, beste anaiak bezala Ameriketara joan izan balitz, etxeko aginte makila Joanesek edukiko zuen.*
- agintera** iz. Hizkl. Aditzaren gramatika modua, agindua, eskaera edo aholkua adierazten duten perpausak hartzen dutena.
- agintza** iz. Promesa. Ik. **agintzari**. *Bataio santuan egindako agintzak berriitu nahi ditut.*
- agintzari** iz. Agindua, promesa. *Zure agintzarien egarri direnak. Eta esango dute: zertan da etorriko delako agintzari hori.*
- agiraka 1** iz. Errieta. *Arduradunen haserre eta agirakak pairatuz. Agiraka ikaragarria. Gurasoen agirakak beldurrak nago.*
- 2 adlag. *Errieta eginez. Hasiko da agiraka. Agiraka ibili. Elkarri agiraka. Agiraka hartuko nindutela uste nuen.*
- agiraka egin** Errieta egin. *Zaharra goari ez egin agiraka, baizik eta erregutu. Hitz lotsagabez agiraka egin zion. || Baditut agiraka gutxi batzuk zuri egiteko.*
- agiri 1** iz. Zerbait frogatzeko edo zerbaiten berri emateko balio duen izkribua. Ik. **dokumentu**. *Berekin zituen diru guztiak eman zizkion, bere eskuz egindako agiri baten azpian. Eska izeaiozu ordainketaren agiria. Norberaren adina egiaztatzen duen agiria. Euskaltzaindiaren irakasle agiria. Bazkide agiria. Nortasun agiria.*
- 2 iz. Adierazpena. *Euskaltzaindiak ez du horretaz agiririk atera. Batzarrean erabaki dena jasotzen duen agiria.*
- agiriko** izlag. [Oharra: Euskaltzaindiak, *agiriko*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. *ageriko*].
- aglutinatu**, aglutina, aglutinatzen du ad. Berez bananduak daudenak elkarri itsatsi.
- agoa** iz. Sutegian gorituriko burdin zatia. *Zeharroletan hamabosten bat arroako agoak egiten ziren.*
- agonia** iz. Hil aurreko uneak, biziaren eta heriotzaren arteko azken borroka. Ik. **hizlari**.
- agor 1** izond. Iturriez, errekez, putzuez, lurrez etab. ez mintzatuz, urik ez duena. Ik. **idor**; **lehor**; **siku**; **ihar**. *Putzu zulo agor bat. Tokirik agorrean ere aurkitzen da inaurkina.*
- 2 izond. (Irud.). *Hain epela mezan, hain agorra jaunartzean. Euskara hitzetan agorra dela. Bihotz agorra. Filosofoaren gailur agorrak utzi.*
- 3 izond. *Fruiturik ematen ez duena. Zuhaitz idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruiturik ematen ez duena.*
- 4 izond. Emakumeez mintzatuz, haurrik izan ezin duena. Ik. **antzu**. *Ez zuten haurrik, agorra baitzen Isabel. Ama agor eta aita zahar baten semea.*
- 5 iz. Iraila.
- 6 iz. Agortea.
- agorraldi 1** iz. Agortea.
- 2 iz. Ibai eta iturrien emaria gutxitzen den urteko garaia. *Lurralde askotan ibaiak idortu egiten dira agorraldian.*
- agorril** iz. Abuztua. *Agorrileko udatiarrak jin dira burrustan.*
- agorte** iz. Euririk gabeko aldi luzea. Ik. **agorraldi**; **idorte**; **lehorte**. *Agorte handietan lurra uraren eske dago. Agortek aurten kalte ekarriko dio laborantzari. Agorte luze bat.*
- agortu**, agor/agortu, agortzen 1 da/du ad. *Iturriez, errekez, putzuez, lurrez eta kidekoen mintzatuz, urik gabe gelditu. Iturria agortu egin da. Txori batek lehenago agortuko luke itsasoa. Agortuko dira zeruko hodeiak eta ez dute ur tanta bat ere botako. Populuaren gaiztakeriek agortu dute haren samurtasunaren iturburua. Erreka agortua zen kasik. Bertsolaritzaren iturria agor ez dadin. Eltzea agortu da. Arestian erran dizut mendi arbolez gabetuak agortzen direla.*
- 2 da/du ad. *Odola, negarra etab. ahitu. Eta bertan agortu zen haren odoljarria. Ama koitadua, ume handi hark zeharo agortu zuen. Ugatzak agortu. Ezin agortuzko negarrak.*
- 3 da/du ad. (Irud.). *Gainerako jakintasunek bihotza agortzeko baizik ez dute balio. Lanean irauin zuen*

kemenak agortu arte. Ez dela gaia agortu. Aski murriztua eta erdi agorturik guregana heldu den hizkuntza. Sormena agortu zaio. Legezko bideak agortu. Onda-sunak agortu.

4 (Era burutua izenondo gisa). *Iturri agortua. Emazte, behi agortua*: esnerik ez duena.

**agotz** iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *agotz*-ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **ahotz**].

**agronomia** iz. Nekazaritzaren arazoan azterketa zientifikoa.

**agudo** 1 adlag. *Heg. Laster, arin. Goazen etxera, eta agudo. Agudo atera nuen gorderik neukana. Agudo zabaldu ziren munduan haien ideiak. Ahitu egin omen da agertu bezain agudo liburutxo bikain hau.*

2 izond. *Ipar. Trebea. Edozein soinu jotzeko nauk agudo. Galilearrak ez baitziren solasturiak, ez hizketan sobera agudoak.*

**agur** 1 interj. Norbaiti, ikustean edo eskutitz baten hasieran eta, bereziki, harengandik urruntzean edo eskutitz baten bukaeran, esaten zaion hitza. Ik. **kaixo**; **adio**. *Entzuleok, agur! Agur, edo Jainkoa dela zurekin. Agur, jauna. Agur Maria, dohain eta grazia guztiez betea. Eta gur egiten zioten, ziotela: agur juduen erregea! Agur denoi, beste bat arte. Agur, Ama; banoa, baina ez betiko.*

2 interj. *Akabo. Baldin hartzen ez bada denboraz ardura, agur gure basoak, agur ezkurra. Eta Jainkoaz axolarik ez bada, agur!*

3 iz. Agurtzea. *Bere agurra helarazi digu errektoreak. Plazetan agurrak dituzte laket, eta Maisu deituak izatea. Andolin Eguzkitza idazle, hizkuntzalari eta euskaltzainari azken agurra emateko. Agur hitzak. Gaur, hamabietan, agur ekitaldia egingo diote Donostiako Errekaldoko beilatokian. Bertsolaria bere agurra botatzera zihola telefono baten musika entzun zen.*

4 iz. Hainbat euskal dantzaren zatietako bat. *Gipuzkoar erako aurrekua osatzen duten lau dantzak egin beharko dituzte: desafioa, eskua aldatzeko soinua, agurra eta zortzikoa.*

5 iz. Begirunea, gurtza. *Jainko egiazkoari bakarrik zor zaizkion agurrak. Agurrak eta ohoreak eta lehia mundutar zoroak, non dira?*

**agur egin** 1 Norbaiti, ikustean edo eskutitz baten hasieran, edo harengandik urruntzean edo eskutitz baten bukaeran, gizalegezko hitzak esan. Ik. **agurtu**. *Agur egiten duela ezker-eskuin txapela eskuan duela. Ez dio agurrrik egin. Bada, etxe batean sartzean, agur egiozue esanez: bakea etxe honi. Elkarri agur eginik, sakabanatu ziren.*

2 (G. g. er.). Gur egin, gurtu.

**agur esan** Agur egin, adio esan. *Agur esan gabe alde egin zenuen. Hezur bat hautsi du jokalaria eta agur esan dio denboraldiari.*

**agur t' erdi** Agur egiteko erabiltzen den adeitasun esapidea. *Agur t' erdi, ongi etorri jauna. Agur, Jon Arrospeide, agur, agur t' erdi, zeru goienetan, atsedendu bedi.*

**agure** 1 iz. Adineko gizona. *Joanes agure zaharrak. Herri honetako gizon-andre, atso-agure eta neska-mutil guztiak. Agure zimurra, zimela. Agure haserrean belau-naldikoa naiz. Agure onari ez atek itxi. || Aguretan bakarzale bihurtu zen.*

2 (Izenondo gisa). *Agurerik agurenak berrogeiren bat urte zituela.*

[Oharra: hitz markatua da, gutxiespen balioa du eskuarki, eta ezin erabil daiteke *adineko*-ren sinonimo oso balitz bezala].

**agurgarri** 1 izond. Begirunez agurtua izatea merezi duena. *Gizon urtetsu agurgarri bat. Jesu Kristoren odol guztiz agurgarria eskaintzen dizut.*

2 izond. Begirunezko tratamendua ematen zaion pertsona bat agurtzeko *jaun* edo *andere* hitzen eskui-nean erabiltzen den adjektiboa. *Agur, jaun agurgarria.*

3 izond./iz. Eliza katolikoak santuki hil direnei ematen dien tituluetako bat. *Santu, Dohatsu eta Agurgarri guztien bizitzak idatz zitza.*

**agurmaria** iz. Hitz horiez hasten den kristau otoitza. Ik. **abemaria**. *Hamalau aitagure eta agurmaria.*

**agurtu**, agur/agurtu, agurtzen 1 du ad. Agur egin. *Senideak bakarrik agurtzen badituzue. "Ongi etorri, ene maiteak" agurtu zituen bere ilobak. Ontzikoak agurtzera etorri zirenak. Doana agurtzea, beti tristea; datorrena agurtzea, berriz, alaigarria.*

2 du ad. Gurtu.

**ahabia** 1 iz. Txilarraren familiako zuhaixka, fruitu mamitsu beltzaxkak eta jateko onak ematen dituen ( *Vaccinium myrtillus* ).

2 iz. Landare horren fruitua.

**ahago** iz. Mingarrabaren familiako belarra, sustrailuzea eta hosto-zabala ( *Rumex patientia* ). *Ahagoaren hostoak, egosita, bizkorgarri eta heste-aringarri gisa erabili ohi dira.*

**ahaide** 1 iz. Norbaitentzat, bere familiako beste norbait. *Ez gara haien ahaideak. Senideak eta gainerako ahaideak. Ahaideak eta adiskideak. Ahaide hurbila, hurkoa, handia. Ahaide txikia. Aberatsa ahaide handi egin, pobrea ahaide txiki. Haginak hurrago ahaideak baino (esr. zah.).*

2 iz. Zerbaitz mintzatuz, harekin loturaren bat edo jatorri bera duen zerbait. *Euskararen ahaideak. Esaera horiek, hizkeraz, Refranes y Sentencias-ekoen ahaide hurbilak ez ezik, senideak dirudite.*

**Ahaide Nagusi** Batez ere pl. Erdi Aroko Euskal Herrian, leinu baten burua. *Ahaide nagusien arteko borrokak.*

**ahaidego** 1 iz. Ahaidetasuna. *Espezieen arteko ahaidegoa.*

2 iz. Senitarte, ahaideen multzoa. *Inor ez da zure ahaidegoan izen horretaz deitzen denik.*

**ahaidetasun** 1 iz. Ahaideen arteko lotura. *Odol ahaide-tasuna. Ezkon ahaide-tasuna. Laugarren mailako ahaide-tasuna.*

2 iz. Jatorri bera duten bi gauzaren arteko lotura. *Gaztelaniaren eta latiniaren arteko ahaide-tasun hurkoa.*

**ahaire** iz. Zub. Doinua.

**ahakar** 1 iz. Errieta, agiraka. Ik. **aharra**. *Aitaren ahakarrari ez entzun eginaz. Jainkoaren kontra erasi dituzten ahakar guztiak.*

2 iz. Liskarra. *Ezkontide arteko ahakar sutsu horietariko batean ziharduten.*

**ahakar egin** Errieta egin. *Ahakar egingo ote zion beldur zen. Bekatuaren eritasunetik sendatzeko borondatearekin egiten diren liskarrak, ahakarrak, mehatxuak.*

**ahal 1** iz. Ahalmena, indarra. *Agertu zuen bere ahala eta indarra. Edozein gauza egiteko duen eskua eta ahala. Osasunarekin zaudenean, ahala duzunean. Nola izan zuten indar, antze, ahal, esku eta botere pena haieztatik aldaratzeko. Ari zaitze ahal guztiaz. Geure ahal guztiaz. Beren ahal guztiak egiten dituzte erdiesteko. Gure ahal txikia.*

2 iz. Litekeenaren nolakotasuna. *Zeren orain baita ontasunean aitzinatzen ahala. Pagatzeko ahala dukezun arteraino. Gehiago emateko ahala duzunez gero.*

3 (Geroaldian doazen aditzetan tartekaturik, desirazko esanahia ezartzen diolarik esaldiari). Ik. **agian 2**; **baldinba**; **baldinbaitere**; **oxala**. *Leher egingo ahal du! Itoko ahal haiz! Baldinba ez ahal naiz honengatik infernuratuko. Barkatuko ahal dit irakurleak zera esaten badiot. Laster etor nadin gurako ahal duzu.*

4 iz. Norbait bere izenean botoa emateko edo erabakitzeke beste norbaiti ematen dion eskumena.

**ahalaz** adlag. *Lap. eta BNaf.* Ahal den neurrian. *Euskara ahalaz garbia darabil. Saiatzen dira ahalaz gordetzen lehengo ohiturak.*

**ahalezko** izlag. Ahala, ahalbidea adierazten duena. *Aditzaren ahalezko modua.*

**ahala 1** adlag. (Aditz baten era burutuaren eskuinean). *Bezain laster, -en neurrian. Iritsi ahala eseri dira. Platerak atera ahala husten ziren. Zorrak gehitu ahala dirua urritzen zihoakigula.*

2 (Aditz baten oinaren eskuinean, batez ere pl. edo guzti-ren ezkerrean). Ahal den (zera) guztia, ahal diren (zera) guztiak. *Esan ahalak esan dizkiote elkarri. Esan ahal guztiak esanda ere. Bota ahalak bota hortxe aspertu arte!*

**ahalbait** adlag. [Oharra: Euskaltzaindiak, *ahalbait*-ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **albait**].

**ahalbide** iz. Norbaitek edo zerbaitek ahal duena. *Bakoi-tzak bere ahalbideen arabera lagundu behar du.*

**ahalbidetu**, ahalbide/ahalbidetu, ahalbidetzen *du* ad. Zerbait posible bihurtu. *Spainiaiko Gobernuak gaur onartuko du homosexualen arteko ezkontzak ahalbidetuko dituen erreforma.*

**ahaldun 1** izond./iz. Ahaltsua, ahala duena. *Jainko Jaun gutziz ahalduna* (Ik. **ahalguztidun**). *Errotaren jabeak herriko ahaldunak ziren.*

2 iz. Ordezkeri bezala aritzeko, esku ematen zaion pertsona. *Ahalduna arduratu zen eroste agiria sinatzeaz.*

3 iz. Diputaziorako edo Batzar Nagusietarako hautaturiko ordezkeria. Ik. **diputatu**. *Arabako Diputazioko ahaldunak. Ahaldun atera. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 25 urteko historian sei ahaldun nagusi izan dira.*

**ahaldundi** iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *ahaldundi*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **aldundi** eta **diputazio**].

**ahalegin** iz. Batez ere pl. Zerbait lortzeko, indar edo ahalmen guztiaz egiten den saioa. Ik. **eginahal**. *Batasun ahaleginak premiazko ditugu hizkuntzak iraungo baldin badu. Alferrekoak gertatu diren ahaleginak. Ahalegin bizian.*

**ahalegina** adlag. Ahal den neurrian. *Ahalegina moztuta ere nahiko luzea izango zen. Gerria ahalegina estutu kortsean.*

**ahalegin(ak) egin** Ahalegindu. *Ahalegina egin behar dute gazteria galbidetik ateratzeko. Ahalegin guztiak egin bazituen ere.*

**ahaleginean** adlag. Ahal den guztia, ahal den neurrian. *Ahaleginean jokatu zuten haren alde. Kultura hizkuntza bat eratzen ahaleginean lehiatuz.*

**ahalegindu**, ahalegin/ahalegindu, ahalegintzen *da* ad. Ahalegina egin, saiatu. *Arazoa argitzen ahalegindu dena. Jakin beharrak ikasten ahalegindu zara. Bide berri bila ahalegintzeko. Bizi garenok ahalegin gaitetzen haren alde. Ahalegindu zen baina ez zuen lortu.*

**ahalge** iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, *ahalge*-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **ahalke**].

**ahalguztidun** izond. Guztiz ahaltsua dena, zernahi ahal duena. Ik. **guztiahaldun**. *Jainko ahalguztiduna. Globalizazioa ahalguztiduna da.*

**ahalik 1** (-ena daraman nola adizlagun baten ezkerrean). Ahal den ...-ena. *Etxea ahalik ongiena apaindu behar da. Ontsa konfesatu ahalik sarriena. Ahalik lasterrenea ihes egizue. Arrangura zaitze ahalik gutxienean eginen zaizkizun bidegabez. Ahalik arinena ezkontzeko.*

2 (-ena daraman izenondo baten ezkerrean). Ahal den ...-ena. *Konfesore ahalik onena bilatu. Has otoitza ahalik errespetu handienarekin. Bertsoak egitea ahalik justuenak.*

**ahalik eta** *Parte hartze ahalik eta zabalena bertatzeko. Ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Ihardetsion ahalik eta hobekiena. Ahalik eta goizenik merkatura joan.*

[Oharra: Adizlagunekin, *ahalik maizen, sarrien etab. baino hobeto, ahalik maizena, ahalik sarriena etab.*].

**ahal izan**, ahal izaten, ahalko/ahal izango **1** (Ezkerrean duen aditz bati dagokiola). Aipatzen dena gertatzeko edo egiteko eragozpenik edo ezintasunik ez izan. (Era burutu gabeak). *Erraz egiten ahal dut: erraz egin ahal dut, erraz egin dezaket. Gaur joaten ahal naiz: gaur joan ahal naiz, gaur joan naiteke. Ozta-ozta entzuten ahal nion: ozta-ozta entzun ahal nion, ozta-ozta entzun niezaiokeen. Nahi zuen guztia jaten ahal zuen: nahi zuen guztia jan ahal zuen, nahi zuen guztia jan zezakeen. Aurkitzen ahal badu: aurkitu ahal badu, aurki badezake. Nork daki non gelditzen ahal den: nork daki non gelditu ahal den, nork daki non geldi daitekeen. Uzten ahal zituen on guztiak: utzi ahal zituen on guztiak, utz zitzakeen on guztiak.*

2 (Era burutuak). *Denek ikusi ahal izan dugu zein kementsu agertu den. Atzeko atetik sartu ahal izan zen.*

3 (Geroaldian). *Beste hiru antzerki-lan ikusi ahal izango dira. Hola egiten ahalko du hark ere, nik gaur egin dudana.*

4 (Ezezko esaldietan, aurreko adieretan aipaturiko kasu guztietan). Ik. **ezin**. *Ez naiz etortzen ahal: ezin naiz etorri. Ez du ekartzen ahal: ezin du ekarri. Mintzatzuten ahal ez direnak. Engainatzen ahal ez gaituena. Ez du jasan ahal izan. Galdetu ahal izan ez diona. Ez zuen egin ahal izango. Ez zuen egiten ahalko.*

5 (Beste aditz bati ez dagokiola). *Ahal badu ekarriko du. Ahal balu ekarriko luke. Gaur bertan, ahal bada (balitz). Ahal denean ahal dena eginez gero. Ahal duzun lasterrenea presta ezazu* (Ik. **ahalik**). *Mundu bat*

- ahal den zuzenena. Erabaki dute ahal den etxe guztietara igortzea eskutitza. Ahal duena egiteko. Ahal den neurrian. Ahal dela behintzat, ez nuke ezer galdu nahi.*  
**6 Hara iritsi ez ahal zen, kontatu zion Wolfiok Apezpikuari gertaera guztia:** hara iritsi bezain laster. *Ez ahal zen Diputazioko ate nagusian barrena Roman desagertu, han non ikusten dugun jende multzo bat.*  
**ahal adina** adlag. Gorputzari ahal adina atsegin ematen diola. *Lasai zaitetz ahal adina.*  
**ahal adinako** izlag. Ahal adinako irabaziak.  
**ahal bezain** adlag. Ahal bezain garbia, ona. *Ahal bezain laster egiteko. Ahal bezain lañoki. Bide hasian sartzen da ahal bezain barrena.*  
**ahal bezainbat** adlag. *Ipar. edo Goi. Ahal adina. Desenkusatu nintzen ahal bezainbat.*  
**ahal bezala** adlag. *Ahal bezala ibiliaz.*  
**ahal izate** iz. Ahala, ahalmena. *Gizakiaren ahal izatearen erakutsirik handienetakoa.*  
**ahalke** iz. *Batez ere Ipar. Lotsa. Ahalkea, ohorea eta presutasun guztia galdurik. Ez behinere bekaturik utzi aitortu gabe ahalkez. Ahalkez gorriturik. Munduaren ahalkez obra onetatik gibelatzen direnak. Ez dakusan begik, ez ahalkerik (esr. zah.).*  
**ahalke izan** da ad. *Lotsa izan. Gizonen artean agertzera ahalke da. Ahalke ere banaiz errateko. Ahalke nintzen neure buruaz. Ez zaitetzela ahalke pobre izateaz.*  
**ahalkeizun 1** iz. *Ipar. edo Goi. Desohorea, laidoa. Orain egin duzu nahi duzuna, eman didazu ahalkeizuna. Egin zaizkidan laidoak eta ahalkeizunak mantsoki hartu ditut.*  
**2 izond.** (G. er.). Ahalkegarria, lotsagarria. *Laxokeria ahalkeizun batez.*  
**ahalmen 1** iz. *Zerbait egiteko ahala, eskua edo gaitasuna. Berezko ahalmena zuen iturri berriak agertzeko. Zerbait erabakitzeke ahalmena. Jainkoaren ahalmena eta esku ahaltsua. Arimaren ahalmenak. Ikusteko ahalmena. Hitz baten adierazte ahalmena. Herri baten ahalmen ekonomikoa.*  
**2 iz.** *Zerbait egiteko, ondorio bat eragiteko tresna baten gaitasun neurgarria. Teleskopio baten ahalmena.*  
**ahaltsu** izond./iz. *Ahalez betea, ahalduna. Erregerik ahaltsuena. Jainko guztiz ahaltsua. Bere beso ahaltsuaz. Herri ahaltsuak. Ahaltsuari gogor egiten eta ahularen alde makurtzen. Munduko ahaltsuek gizonak menderatzen dituzte.*  
**ahamen** iz. *Ahoan aldi bakoitzean sartzen den janari puska edo kopurua. Ik. mokadu. Ahamen bat ogi. Ahamen bat ere jan gabe.*  
**ahamen bat ere ez izan** *Ezer ez izan. Ahamen bat ere ez dut.*  
**ahantzarazi**, ahantzaraz, ahantzarazten *du* ad. *Ahaztera behartu. Ahantzarazi dizkit Jainkoak neure neke guztiak. Kalterik handiena, galgarriena eta beste guztiak ahantzarazten dituen.*  
**ahantzi**, ahantz, ahantzten *da/du* ad. *Ahaztu. Zerbait ahantzi zaio. Bere eginbideez berehala ahantzi zen. Ez ezazu ahantz zeure herria eta zeure gurasoen etxea. Ahantzi dut erratea, harresi horretan bazela dorre bat. Gainerako guztiak laster ahantziko naute. Ateratzean, ingeles beilari batek ahantzi duen makila eman dit opari gisa.*  
**ezin ahantzi(zko)** *Ezin ahaztuzkoa. Ezin ahantzizko amesgaizto bat. Hemen iragan minutu ezin ahantzizkoak. Ezin ahantzia da amaren hegala.*  
**ahanzkor** izond. *Ahazkorra. Jainkoa, luzakor bada ere, ez da ahanzkor.*  
**ahanzte** iz. *Ahaztea. Ahanzte bat aski da oro nahasteko.*  
**ahapaldi 1** iz. *Olerki bat banatzen den lerro multzoe-tako bakoitza. Sonetoak lau ahapaldi ditu. Salmo baten ahapaldi bat. Zortzi ahapaldiko kanta.*  
**2 iz.** *Batez ere pl. Hitz lotsagarria, iraingarria. Hone-lako ahapaldiak, honen itsusiak pairatzen ditu. Bere gurasoei ahapaldi gaiztorik esaten dienak.*  
**ahardi 1** iz. *Zerri emea. Ahardi erditu berriari bazka ona eta nasaia ematen zaio.*  
**2 izond.** *Abera beltzez mintzatuz, emea. Urde ahardia. Zerriak, batzuk dira ordotsak, besteak ahardiak, edo arrak eta emeak.*  
**ahari** iz. *Ardiaren arra, adar biribilkatuak dituen. Ahari gaztea. Ahari zikiratua. Ahariak ardia gainkatu.*  
**ahari joko, ahari-joko** *Ahari talka.*  
**ahari talka, ahari-talka** *Bi aharien arteko dema.*  
**Ik. ahari joko; ahari topeka.  
**ahari topeka, ahari-topeka** *Ahari talka.*  
**aharra** iz. *Liskarra, errieta. Ik. ahakar. Aharra sortu. Ez du aharrarik, ez oihurik erabiliko. Arrebarekin aharran aritzeko. Gosearekin eta heriotzarekin aharran. || Esr. zah.: Etxe hutsa, aharra hutsa. Beharrak aharra.*  
**aharrausi** iz. *Nahi gabe egiten den aho-zabaltzea, loguraren, gosearen edo gorputzeko ondoezen baten ezau-garri dena. Logalezko aharrausia. || Esr. zah.: Aharrausi luzea, loa edo gosea. Aharrausia ahotik ahora.*  
**aharrausi egin** *Aharrausi egiten duen bakoitzean.*  
**ahate 1** iz. *Hegazti palmipeda, moko zapala, hankak laburrak eta hegoak luzeak eta muturdunak dituen (Anas sp.). Ik. paita. Etxe ahatea. Ahate basatia. Ahate gibel gizendua. Ahate bat saltsan. Ahateen urmael ondotik igaro. Ahateari igerika irakastea (esr. zah.).*  
**2 iz.** *Herri hizkeran, ahatearen antzeko zernahi animalia.*  
**ahats** izond. (Zah.). *Zikina, lizuna. Ohitura ahatez betea.*  
**ahazkor** izond. *Gauzez erraz ahazten dena, ahazteko joera duena. Ik. ahanzkor. Besteri egiten dioten gaitzaren zein ahazkorrek diren! Senar ahazkorra. Ahazkorrei gogorarazi nahi nieke zer gertatzen zen lehen.*  
**ahazte** iz. *ahaztu* aditzari dagokion ekintza. *Era horretako ahazteak maiz gertatzen dira.*  
**ahaztu**, ahatz, ahazten **1 da/du/zaio** ad. *Zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galdu; gogoan ez eduki. Adiskideez ahaztu dira. Ahaztuko naiz haren bekatu guztiez. Lurralde honekin ez da ahaztuko. Ez da ahaztu behar han gertatu zena. Haren izena ahaztu egin zait. Ahaztu zitzaion ikasi zuena. Gaurko prentsaurrekoan euskaraz hitz egitea ahaztu zaio. Eskua eraman zuen burura, zerbait esatea ahaztu balitzaio bezala. Eta ardo gutxi batekin ahazten zaizkio bere nekeak. Euskaltzaindiak ez du bere lankide handi hau ahaztu. Agindu hau ez duzu inola ere ahaztu behar. Ez dezagun ahazt horretan datzala arazo nagusia. Ahatz ditzagun gure arteko haserreak. Ez nazazula ahatz zure otoiñtetan.*  
**2 zaio** ad. *Ikasi den zerbait egiteko edo erabiltzeko gaitasuna galdu. Euskaraz hitz egiten ahaztu zaio. Oinez ibiltzen ahaztu zait! Igerian ahaztu. Erraz ikasten du eta erraz ahazten.***